



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

UDALAREN OSOKO BILKURA **2005eko azaroaren 30eko ohiko bilera**

BERTARATU DIRENAK:

ALKATE-UDALBURUA

EAJ-PNV.- KARMELO SAINZ DE LA MAZA ARROLA jn.

ZINEGOTZIAK

EAJ-PNV.- AINARA URBIETA BERGARA and.
EAJ-PNV.- ENEKO ARRUEBARRENA ELIZONDO jn.
EAJ-PNV.- FCO. JAVIER BIDEA MOLINILLO jn.
EAJ-PNV.- BEATRIZ RESA BARDECI and.
EAJ-PNV.- BIXENTE BARREIRO ASENSIO jn.
EAJ-PNV.- IÑAKI GOIKOETXEA GORDO jn.
EAJ-PNV.- JESUS BILBAO CURIEL jn.
EAJ-PNV.- JON LOIZAGA CAYERO jn.
EAJ-PNV.- GUILLERMO MATEO KAREAGA jn.
PSE-EE-PSOE.- SUSANA GONZÁLEZ RÓMULO and.
PSE-EE-PSOE.- JOSÉ M. TOLEDO CAÑAMERO jn.
PSE-EE-PSOE.- NIEVES HURTADO URTIAGA and.
PSE-EE-PSOE.- MERCEDES ANGULO ORDOZGOITI and.
PP.- XABIER OLABARRIETA ARNAIZ jn.
PP.- IGNACIO GAMERO DELGADO jn.
PP.- ARTURO ALDECOA RUIZ jn.
PP.- AIALA EGUILUZ RODRIGUEZ and.
EB-Berdeak.- IÑAKI GOMENDIOURRUTIA SÁINZ jn.
EB-Berdeak.- RUBEN BELANDIA FRADEJAS jn.
EA.- ERNESTO A. TRIGUEROS S. COLOMA jn.

EUSKARA ITZULTZAILEA

XABIER PAYÁ jn.

IDAZKARIA

M^a VICTORIA ERKIAGA ARAGÜENA and.

Leioako udaletxean, bi mila eta bosteko azaroaren hogeita hamarreko iluntzeko zortziak direla, elizate honetako udalaren osoko bilkura bildu da ohiko bilera egiteko. **Alkate-udalburua, KARMELO SAINZ DE LA MAZA ARROLA jauna** izan da bileraren burua eta **idazkariak, M^a VICTORIA ERKIAGA ARANGUENA andreak**, lagundu dio. Haiekin batera, orriaren ertzean agertzen diren zinegotziek parte hartu dute bileran eta egintza zein eskubidez Udalbatza osatzen duten kideen legezko gehiengo osatzen dute. Alkate-udalburu jaunak aurretik egin die ohiko bileran parte hartzeko deia, guztia Toki Araubidearen oinarriak arautu dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46.1 artikuluan ezarritakoa, aipatutako legearen 21.1.c) artikuluan azaldutakoa eta azaroaren 28ko 2.568/1986 Errege Dekretuak onetsi duen Tokiko Udalbatzen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko araudiaren 41.4 eta 80.1 artikuluetan xedatutakoa oinarritzat hartuta.

Adierazitako orduan eta lehenengo deialdian, Udalburutzak ekitaldia irekitzat jo du; jarraian, ohiko bilera honetako eguneko aztergaien zerrendan agertzen diren gaiak aztertu dituzte:

I.- ERABAKITZEKOAK

1.- 2005-09-29ko eta 2005-10-20ko OHIKO BILEREN AKTAK ONESTEA: Izenburuan aipatutako bilkuren aktak onetsi gabe zeudela aipatu da; beraz, Udalaren osoko bilkurak onesteko jarri dira.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak, **aho batez**, onetsi egin ditu bi mila eta bosteko irailaren hogeita bederatzian eta urriaren hogeian egindako ohiko bileren aktak.

2.- LEIOA ABEEK HHS BILTZEKO KONTRATUA ZABALTZEA, PAPER A GAIKA BILTZEKO ZERBITZUA ERE HARTZEKO. Tokiko Gobernu Batzarrak 2005eko azaroaren 15ean egindako bileran onetsi zuen Alkatetza-Udalburutzaren 687/2005 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak 2005eko azaroaren 9an hartu zuen 167. zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

Udalaren Zerbitzu teknikoek jakinarazi dute osoko bilkurak 2000-10-11n hartu zuen 5. Erabakiaren bitartez LEIOA ABEEri adjudikatu zitzaioela udal mugartean hiri-hondakin solidoak (HHS) bildu eta garraiatzeko zerbitzua, urtean 390.514,02 euroko oinarritzko zenbatekoan. (2005eko ekitaldian, urtez urte KPI eguneratuta, 439.806,19 eurokoa da zenbateko hori (BEZ barne)).

Azken ekitaldian, Beotibar Recycling S.L. merkataritza-etxeak eman izan du erabilitako papera eta kartoia gaika biltzeko zerbitzua, horretarako dauden edukiontzietan uzten diren hondakinak batuz, iglu itxurako edukiontzia garabi sistemaren bitartez bilduz. Astero biltzen dira edukiontzi guztietako hondakinak, gutxi gorabehera.

Aipatutako berriazko zerbitzu hori behar bezala arautzeko, lehiaketa publikoa gauzatu zen berau adjudikatzeko. Lehiaketa hori eman gabe utzi zen, Tokiko Gobernu Batzarrak 2005-05-24an hartu zuen 339. ebazpenean ezarritakoaren arabera. Aipatutako lehiaketa eman gabe utzi izanaren arrazoa izan zen eskaintzak aurkeztu zituen enpresa batek ere ez zuela behar bezala eta behin betiko konpontzen zerbitzuaren problematika, ezinbestean herri bidean garbiketarekin eta HHS biltzeko zerbitzuari eragiten dioten edukiontzien gainezka egin izanagatik gertakariekin koordinatu behar dena.

Ondorioz, aukerarik onena honako hau dela pentsatu da: HHS biltzeko zerbitzuaren arduraduna den LEIOA ABEEri proposatuko zaio erabilitako paper eta kartoia gaika biltzeko eskaintza egin dezala, zerbitzuaren maiztasun eta kalitatea handitu ahal izateko, dauden baliabideak behar bezala erabiliz, eta HHS biltzeko zerbitzuari lotutako langile eta makinen sinergiak aprobetxatuz.

Hori dela eta, aipatutako merkataritza-etxeak, 2005-11-08ko idazkiaren bitartez (erregistro zk.: 7.063) *“Proposamena: papera eta kartoia dboko zamarekin biltzeko zerbitzu, eta papera eta kartoia atez ate biltzeko zerbitzua”* izeneko dokumentazioa aurkeztu du. Honakoak dira bere oinarritzko ezaugarriak:

- **Papera eta kartoia alboko zamaren sistemaz biltzea.** Gaur egun dauden edukiontziak kendu eta alboko zama duten beste batzuekin ordeztuko dira. 25 m³ko edukiera izango dute eta horretarako prestatutako ibilgailuek biltzeko aukera emango dute. Astean hiru aldiz bilduko dira (astelehen, asteazken eta ostiraletan). 6:00etatik 13:00 bitartean egitea proposatu da.
- **Dendetan atez ate biltzea.** Supermerkatu, arropa-denda eta, oro har, ekoizle handizat hartuko den beste edozein dendetarako diseinatu da. Era berean, fruta-denda, arrain-denda eta antzekoetan ere egingo da. Astean bost aldiz emango da zerbitzua (astelehenetik ostiralera). 12:00etatik 14:15era egitea proposatu da, ordutegia establezimenduetako jabeek azaldutako beharrezan arabera egokituz.

Zerbitzuaren kostua, guztira, urtean 84.111,34 eurokoa izango litzateke (BEZ barne).

Hori guztia dela eta, Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Legearen testu bategina onetsi zuen ekainaren 16ko 2/2000 Legegintzazko Errege Dekretuaren 54 eta 101. artikuluetan adierazitakoaren arabera, LEIOA ABEEarekin HHS biltzeko zerbitzurako egindako kontratua zabaltzea proposatu da, erabilitako paper eta kartoia gaika biltzeko zerbitzua ere har dezan. Urtean 84.111,34 euroko zenbatekoa (BEZ barne) erabiliko da horretarako. Horrenbestez, kontratua zabaltzeko behar da eta, ondorioz, 3.364,45 euroko banku-abala aurkeztu behar da, behin betiko berme gisa.

EB Berdeak taldeko ordezkariak jakinaren gainean geratu dela adierazi du, baina espedientea aztertu nahi duela azaldu du, aldaketa honek aparkaleku kopuruan izango duen eragina aztertzeko, batez ere Pinueta auzoan. Batzordeko buruak adierazi du oro har ez diela eragin handirik egingo aparkalekuei, edukiontzi gehienak linean daudelako. Hala eta guztiz ere, onartu egin du Pinueta



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

gunean eraginik izan dezakeela, baina bere ustez lehentasuna eman behar zaio zerbitzua hobetzeari, aparkalekuak kentzearen gaineratik.

Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak honako jarduerak egitea komeni dela iritzi du:

- Proposamen honi buruz eman diren azalpenen jakinaren gainean geratuko da. Gauzak horrela, Gobernu Taldeko ordezkariak (EAJ/PNV eta EA) ados egon dira Leioa ABEEK HHS biltzeko kontratua zabaltzearekin, papera gaika biltzeko zerbitzua ere har dezan, adierazitako moduan.
- PSE/EE/PSOE, PP eta EB-BERDEAK taldeetako ordezkariak jakinaren gainean geratu baino ez dute egin. Osoko bilkuran azalduko dituzte euren arrazoibideak eta, espedientea aztertu ostean, euren jarrera ere azalduko dute.

EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK eta ALKATETZA-UDALBURUTZAK **berretsi egin dute** goian adierazitako irizpena. Bada, gai hau Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeko ipini beharko da.

EB-Berdeak taldeko Iñaki Gomendiorrutia Sáinz jaunak honakoa adierazi du:

Bere esku-hartzeari hasiera eman dio, ez dela luzatuko adieraziz, Hirigintza Batzordean azaldu zen bezala arrazoizkoa dirudielako gaika biltzeko zerbitzuan alboko zama-prozesurako neurriak hartu behar badira, dagoeneko dauzkaten baliabideak erabiltzea, ezarritako enpresen bitartez izan arren. Aditzera eman du, bitxia dirudiela hau bezalako gauzak bere garaian lehiaketatik baztertu ondoren, orain pilotzea, bilketa honetarako lehiaketa hutsal deklaratu ondoren. Adierazi du, tamaina handiko gauzekin gertatu zenaren antzekoa zela, kontratuan hobekuntza bezala aurkezten zuten enpresak ere bazeudelako eta doi-doi baztertu egin zen eta gero pilatu egin ziren; hortaz, uste du metaketa-prozesua zaborren lehiaketatik egin zitekeela.

Intervención de **D. Eneko Arruebarrena Elizondo, de EAJ-PNV:**

Adierazi du tamaina handiko hondakinei buruz ez duela ezer esango, ez duelako gogoan, baina oso ondo gogoratzen dela paperaren gaiari buruz. Hondakinen lizitazioari buruzko lehiaketa egin zenean, oraindik indarrean zegoen papera biltzeko Beotibarrekin egindako kontratua eta, horregatik, ezin izan zen paperaren gaia sartu hondakinen lehiaketan.

Eztabaidaren ondoren bozkatzeko ipini da. Hona hemen bozketaren emaitza:

BOZKETA ETA OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Gaia bozkatu egin da, eta honakoa izan da emaitza: Aldeko hemeretzi boto, EAJ-PNVko hamar ordezkariena, PPko lau zinegotzienak, PSE-EE-PSOeko lau zinegotzienak eta EAko ordezkariarena; abstentzio bi ere egon dira, EB-Berdeak taldeko bi zinegotzienak. Horrenbestez, Udalaren osoko bilkurak, **gehiengoaren aldeko botoaz erabaki du** LEIOA ABEEri hiri-hondakin solidoak biltzeko kontratua zabaltzea, kontratu horretan papera gaika biltzeko zerbitzua ere hartzen duelako, Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumeneko Informazio Batzordearen irizpenean azaldukoari jarraituz. Era berean, alkatea ahaldunduko da ekitaldi honetan bertan, dagokion kontratua eman dezan.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

3.- BILBAO-BIZKAIA UR PARTZUERGOAREN ESTATUTUEN ALDAKETA, SARRERA ETA LEHENENGO ARTIKULUA ALDATZEKO, HAIN ZUZEN ERE.

Tokiko Gobernu Batzarrak 2005eko azaroaren 15ean egindako bileran onetsi zuen Alkatetza-Udalburutzaren 689/2005 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak 2005eko azaroaren 9an hartu zuen 169. zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoak bere estatutuen 1. artikulua aldatzea eta bere funtzioak azaltzen dituen hitzaurrea sartzea eragin duten inguruabarren berri eman du Batzordeko buruak. Aldaketa horrekin erakunde honen helburuak azaltzen dira.

Hirigintza, Etxebizitza, Garraio eta Ingurumeneko Informazio Batzordea jakinaren gainean eta ados geratu da.

EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK eta ALKATETZA-UDALBURUTZAK **berretsi egin dute** goian adierazitako irizpena. Bada, gai hau Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeko ipini beharko da.

Intervención de **D. Xabier Olabarrieta Arnaiz, del PP:**

Adierazi duenez puntu honetan hainbat zalantza juridiko daude proposatu den aldaketari dagokionez eta, ondorioz, bere talde politikoak ez du aldeko botorik emango; horrenbestez, abstenitu egingo dira.

Eztabaidaren ondoren bozkatzeko ipini da. Hona hemen bozketaren emaitza:

BOZKETA ETA OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Gaia bozkatu egin da, eta honakoa izan da emaitza: Aldeko hamaika boto, EAJ-PNVko hamar ordezkariak eta EAko ordezkariarena; zortzi abstentzio, PSE-EE-PSOeko lau zinegotzienak, PPko lau zinegotzienak eta EB-Berdeak taldeko bi zinegotzienak. Horrenbestez, Udalaren osoko bilkurak, **gehiengoaren aldeko botoaz**, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren Estatutuen aldaketa onestea **erabaki du**, hitzaurrea sartu eta testuaren lehenengo artikulua aldatzeko, Partzuergoko Batzar Nagusiak 2005eko ekainaren 22ko batzarrean onetsitako testuari dagokionez.

4.- JOSE MARIA UDONDO ASTIGARRAGA JAUNAK AURKEZTUTAKO BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOA, LAMIAKO-TXOPOETAKO BBBPBk ERAGINDAKO ONDASUN ETA ESKUBIDEEN ZERRENDA BEHIN BETIKO ONETSI ZUEN OSOKO BILKURAREN ERABAKIAREN KONTRA:

Tokiko Gobernu Batzarrak 2005eko azaroaren 29an egindako bileran onetsi zuen Alkatetza-Udalburutzaren 732/2005 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak 2005eko azaroaren 23an hartu zuen 179. zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Udalaren Zerbitzu Teknikoek jakinarazi dute osoko bilkurak 2005eko ekainaren 28ko batzarrean hartu zuen 14. erabakiaren bitartez, behin betiko onetsi zela Lamiako-Txopoetako Barne Berrikuntza eta Birgaitzerako Plan Bereziaren (BBBPB) hirigintzako kudeaketan egondako nahitaezko jabetzak eragindako ondasun eta eskubideen zerrenda. Horrenbestez, espedientea Eusko Jaurlaritzari bidaltzeko erabakia ere hartu zen, premia okupatzeko adierazpena egin zezan.

José María Udondo Astigarraga jaunak berraztertzeko errekurtoa aurkeztu zuen erabaki horren kontra eta 2005-10-13an sartu zen Leioako Udalaren Erregistro Nagusian (zk.: 6.412). Bertan, berriro azaldu zuen ez zegoela ados premia okupatzeko prozedurarekin, ondasun eta eskubideen idazketa jendaurrean azaltzeko fasean azaldu zituen arrazoi berberengatik: Ez dago aurrekontuko gordailu nahikorik eta ez da beharrezkoa premia okupatzeko adierazpenaren tramitearekin jarraitzea.

Hori kontuan hartuta, Udalaren Bulego Teknikoak txostena egin zuen 2005-11-17an. Bertan adierazi zuen ez dela beharrezkoa aurrekontuko zenbatekorik gordailatzea, Leioako Udala arduratu delako zerbitzua ematen duen enpresak (Bizkai-Eder 2000, S.L.) berme nahikoak izan ditzan, beharrezko kalte-ordainak ordainduko direla bermatzeko. Eusko Jaurlaritzako Kontseiluaren premia adierazpenari dagokionez, urriaren 4ko 279/2005 dekretuaren bitartez, espedientea aztertu ostean adierazi zuen BBBPBk eragindako ondasun eta eskubideak premia okupatu behar zirela, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolakuntzari buruzko Legearen 26. artikuluan xedatutakoaren arabera, udal argudioak bere eginez. Horregatik guztiagatik, berraztertzeko errekurtoa gaitziritzearen aldeko txostena egin da.

Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak proposatu du osoko bilkuraren erabakiaren bitartez gaitziritzea José María Udondo Astigarraga jaunak jarritako berraztertzeko errekurtoa, udalaren Bulego Teknikoak adierazitakoa oinarri hartuta.

EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK eta **ALKATETZA-UDALBURUTZAK berretsi egin dute** goian adierazitako irizpena. Bada, gai hau Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeko ipini beharko da.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak **aho batez** onetsi du Jose Maria Udondo Astigarraga jaunak aurkeztutako berraztertzeko errekurtoa gaitziritzea. Hori, Lamiako-Txopoetako BBBPBk eragindako ondasun eta eskubideen zerrenda behin betiko onetsi zuen osoko bilkuraren erabakiaren kontra ezarri zuen eta udalaren Bulego Teknikoak idatzitako txostenean azaldutakoaren arabera gaitziritziko da, Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak onetsita.

5.- KREDITUAK ALDATZEKO 2/2005 ESPEDIENTEA, UDAL AURREKONTUKO KREDITUAK GEHITZEAREN BIDEZ: Tokiko Gobernu Batzarrak 2005eko azaroaren 22an egindako bileran onetsi zuen Alkatetza-Udalburutzaren 713/2005 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak 2005eko azaroaren 16an hartutako 172. irizpenak honakoa dio:



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Berezi honi kredituak aldatzeko espediente bati buruz (mota: Diruzaintzako gerakin likidoaren kargurako kreditu-gehigarria) egindako proposamena aztertu da.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Tokiko Erakundeen Aurrekontuari buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 34. artikulua eta aurrekontuak betearazteko udal arauaren 4.f) oinarriak xedatutakoari jarraiki, kreditu-gehigarriak modu hauetara finantza daitezke:

- a.... Diruzaintzako gerakin likidoaren kargura.
- b.... Benetan bildutako diru-sarrerara berri edo handiagoen bidez.
- c.... Aurrekontuko beste partida batzuen kreditua deuseztatuz edo horri baja emanaz.

Hona hemen gehikuntzaren zenbatekoa eta finantzazio modua azalduta:

KREDITU-GEHIGARRIA

AURREKONTU PARTIDA	IZENDAPENA	GEHITU BEHARREKO ZENBATEKOA
00400/22210/2220100	Telefonozko komunikazioak	12.000,00 €
00400/22210/2269900	Hainbat gastu	3.000,00 €
00400/22210/2390000	Bestelako kalte-ordainak	4.000,00 €
00500/32200/2269900	Hainbat gastu. Enplegu tailerra	13.075,52 €
00600/12210/2269000	Bake Epaitegia	3.000,00 €
00900/45010/2279900	Hitzartutako zerbitzuak. Liburutegia	28.396,80 €
01000/46010/2270100	Sakoneta garbitzea	70.000,00 €
01000/46100/4811800	Kirol gertakarien sustapena	30.000,00 €
01200/01000/3690100	Zor publikoa	1.100,00 €
GUZTIRA		164.572,32 €

FINANTZIAZIOA

AURREKONTUKO KONTZEPTUA	IZENDAPENA	ERABILITAKO ZENBATEKOA
870/01	Gerakinak sartzea	164.572,32 €

Udalaren osoko bilkurari dagokio espediente hau onestea, aurrekontuak betearazteko udal arauan xedatutakoaren arabera.

Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak honakoa egitea egokia dela adierazi du:

1. Honakoaren aldeko irizpena emango da: kredituak aldatzeko 2/2005 espedientea (mota: udal aurrekontuko kreditu-gehigarria), irizpen honetan aipatutakoa, hain zuzen ere.
2. Kredituak aldatzeko espedientea onesteari buruzko puntua Udalaren osoko bilkurak egiten duen hurrengo bileraren aztergaien zerrendan sartuko da.
3. Espedientea jendaurrean azalduko da hamabost egunez, eta horretarako horri buruzko iragarkia argitaratuko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean. Epe horretan interesdunek espedientea aztertu eta egoki deritzen erreklamazioak egin ahal izango dituzte. Espedientea jendaurrean azaltzeko epean alegaziorik aurkeztuko ez balitz, berori behin betiko onetsizat hartuko litzateke, hori guztia Tokiko Erakundeen Aurrekontuari buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 15. artikuluan ezarritakoa aintzat hartuta.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK eta ALKATETZA-UDALBURUTZAK **berretsi egin dute** goian adierazitako irizpena. Bada, gai hau Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeko ipini beharko da.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak, **aho batez**, kredituak aldatzeko 2/2005 espedientea (mota: udal aurrekontuko kreditu-gehigarria) **onetsi du**, Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziaren irizpenean adierazten den eran.

6.- KREDITUAK ALDATZEKO 1/2005 ESPEDIENTEA, UDAL AURREKONTUKO FUNTZIO-TALDEEN ARTEAN TRANSFERENTZIAK EGITEAREN BIDEZ: Tokiko Gobernu Batzarrak 2005eko azaroaren 22an egindako bileran onetsi zuen Alkatetza-Udalburutzaren 715/2005 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak 2005eko azaroaren 16an hartutako 174. irizpenak honakoa dio:

Gastuak premiaz burutu behar direnez, eta horiek finantzatzeko aurrekontuko krediturik ez dagoenez edo kredituek behar beste dirurik ez dutenez, kredituak aldatzeko espediente bat egin beharko da (mota: kreditu transferentziak). Horrela, aurrekontuaren zenbateko osoa aldatu gabe, kredituaren zenbateko osoa edo horren zati bat aurrekontuko beste partida batzuetan sartuko da, nahiz eta funtzio-talde ezberdinetakoak izan.

Toki Ogasunak arautzen dituen abenduaren 28ko 39/1988 Legearen 160. artikuluan eta aurreko legea garatzen duen 500/1990 Errege Dekretuaren 40. Artikuluan xedatutakoaren arabera, bai eta aurrekontua betearazteko 3. oinarriak xedatutakoari jarraituz ere, funtzio-talde ezberdinen arteko kreditu transferentziak Udalaren osoko bilkurari dagozkio.

Transferitutako kredituak eta horien finantzazioa jasotzen dituzten partidak ondoren zehaztutakoak izango dira:

GEHIKUNTZAK

AURREKONTU PARTIDA	IZENDAPENA	ZENBATEKOA
01100/1215/2270100	Garbiketa	50.00,00 €
GUZTIRA		50.000,00 €

FINANTZIAZIOA

AURREKONTU PARTIDA	IZENDAPENA	ZENBATEKOA
00700/43222270100	Udal eraikinen garbiketa	50.000,00 €
GUZTIRA		50.000,00 €

Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak honakoa egitea egokia dela adierazi du:



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

1. Honakoaren aldeko irizpena emango da: kredituak aldatzeko **1/2005** espedientea (mota: udal aurrekontuko funtzio-talde ezberdinen arteko kreditu transferentziak), irizpen honetan aipatutakoa, hain zuzen ere.
2. Kredituak aldatzeko espedientea onesteari buruzko puntua Udalaren osoko bilkurak egiten duen hurrengo bileraren aztergaien zerrendan sartuko da.
3. Espedientea jendaurrean azalduko da hamabost egunez, eta horretarako horri buruzko iragarkia argitaratuko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean. Epe horretan interesdunek espedienteaz aztertu eta egoki deritzen erreklamazioak egin ahal izango dituzte. Espedienteaz jendaurrean azaltzeko epean alegaziorik aurkeztuko ez balitz, berori behin betiko onetsizat hartuko litzateke, hori guztia Ogasunak arautzen dituen abenduaren 28ko 39/1988 Legearen 150 eta 158.2 artikuluetan ezarritakoa aintzat hartuta.

EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK eta ALKATETZA-UDALBURUTZAK **berretsi egin dute** goian adierazitako irizpena. Bada, gai hau Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeko ipini beharko da.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak, **aho batez**, kredituak aldatzeko 1/2005 espedienteaz (mota: udal aurrekontuko funtzio-talde ezberdinen arteko transferentzia) onetsi du, Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziaren irizpenean adierazten den eran.

7.- EUSKARAREN ERAKUNDEA ERAKUNDE AUTONOMOAREN AURREKONTUKO KREDITUAK ALDATZEKO 1/2005 ESPEDIENTEA, KREDITU-GEHIGARRIAREN BIDEZ:

Tokiko Gobernu Batzarrak 2005eko azaroaren 22an egindako bileran onetsi zuen Alkatetza-Udalburutzaren 716/2005 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak 2005eko azaroaren 16an hartutako 175. irizpenak honakoa dio:

Euskararen Erakundea Erakunde Autonomoak, bertako Zuzendaritza Batzak 2005-11-14an onetsi zuen kredituak aldatzeko espediente bati buruz (mota: Diruzaintzako gerakin likidoaren kargurako kreditu-gehigarria) batzorde honi gindako proposamena aztertu da.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Tokiko Erakundearen Aurrekontuari buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 34. artikulua eta aurrekontuak betearazteko udal arauaren 4.f) oinarriak xedatutakoari jarraiki, kreditu-gehigarriak modu hauetara finantza daitezke:

- A Diruzaintzako gerakin likidoaren kargura.
- B Benetan bildutako diru-sarrera berri edo handiagoen bidez.
- C Aurrekontuko beste partida batzuen kreditua deuseztatuz edo horri baja emanez.

Hona hemen gehikuntzaren zenbatekoa eta finantzazio modua azalduta:



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

KREDITU-GEHIGARRIA

AURREKONTU PARTIDA	IZENDAPENA	GEHITU BEHARREKO ZENBATEKOA
4212.130.02 GUZTIRA	Bestelako ordainsariak	52.000,00 € 52.000,00 €

FINANTZIAZIOA

AURREKONTUKO KONTZEPTUA	IZENDAPENA	ERABILITAKO ZENBATEKOA
870/01 GUZTIRA	Kreditu erantsien gerakinak sartzea	52.000,00 52.000,00

Udalaren osoko bilkurari dagokio espediente hau onestea, aurrekontuak betearazteko udal arauan xedatutakoaren arabera.

Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak honakoa egitea egokia dela adierazi du:

1. Honakoaren aldeko irizpena emango da: Euskararen Erakundea Erakunde Autonomoaren aurrekontuko kredituak aldatzeko 1/2005 espedientea, irizpen honetan aipatutakoa, hain zuzen ere.
2. Kredituak aldatzeko espedientea onesteari buruzko puntua Udalaren osoko bilkurak egiten duen hurrengo bileraren aztergaien zerrendan sartuko da.
3. Espedientea jendaurrean azalduko da hamabost egunez, eta horretarako horri buruzko iragarkia argitaratuko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean. Epe horretan interesdunek espedientea aztertu eta egoki deritzen erreklamazioak egin ahal izango dituzte. Espedientea jendaurrean azaltzeko epean alegaziorik aurkeztuko ez balitz, berori behin betiko onetsizat hartuko litzateke, hori guztia Tokiko Erakundearen Aurrekontuari buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 15. artikuluan ezarritakoa aintzat hartuta.

EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK eta ALKATETZA-UDALBURUTZAK **berretsi egin dute** goian adierazitako irizpena. Bada, gai hau Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeko ipini beharko da.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak, **aho batez**, Euskararen Erakundea Erakunde Autonomoaren aurrekontuko kredituak aldatzeko 1/2005 espedientea (mota: kreditu-gehigarria) onestea **erabaki du**, Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziaren irizpenean adierazten den eran.

8.- SOINU ATADIA FUNDAZIO PUBLIKOAREN AURREKONTUKO KREDITUAK ALDATZEKO 1/2005 ESPEDIENTEA, KREDITU-GEHIGARRIAREN BIDEZ: Tokiko Gobernu Batzarrak 2005eko azaroaren 22an egindako bileran onetsi zuen Alkatetza-Udalburutzaren 717/2005 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak 2005eko azaroaren 16an hartutako 176. irizpenak honakoa dio:

Batzorde honi Soinu Atadia Fundazio Publikoak 2005-11-10ean kredituak aldatzeko espediente bati buruz (mota: Diruzaintzako gerakin likidoaren kargurako kreditu-gehigarria) egindako proposamena (23. zenbakidun erabakia) aztertu da.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Tokiko Erakundeen Aurrekontuari buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 34. artikulua eta aurrekontuak betearazteko udal arauaren 4.f) oinarriak xedatutakoari jarraiki, kreditu-gehigarriak modu hauetara finantza daitezke:

- A Diruzaintzako gerakin likidoaren kargura.
- B Benetan bildutako diru-sarrera berri edo handiagoen bidez.
- C Aurrekontuko beste partida batzuen kreditua deuseztatuz edo horri baja emanez.

Hona hemen gehikuntzaren zenbatekoa eta finantzazio modua azalduta:

KREDITU-GEHIGARRIA

AURREKONTU PARTIDA	IZENDAPENA	GEHITU BEHARREKO ZENBATEKOA
1125.0130.02	Langileen ordainsariak	6.000,00 €
1111.226.02	Protokolo arretak	3.000,00 €
1125.116.98	Orkestraren eta Abesbatzaren gastuak	2.800,00 €
4215.226.99	Kontzertuetako gastuak	1.000,00 €
1125.625.99	Inbentarioan sar daitekeen bestelako materiala	1.000,00 €
9114.226.03	Publizitatea	2.900,00 €
1125.629.00	Musika-tresnak	5.700,00 €
GUZTIRA		22.400,00

FINANTZIAZIOA

AURREKONTUKO KONTZEPTUA	IZENDAPENA	ERABILITAKO ZENBATEKOA
870/01	Kreditu erantsien gerakinak sartzea	22.400,00
GUZTIRA		22.400,00

Udalaren osoko bilkurari dagokio espediente hau onestea, aurrekontuak betearazteko udal arauan xedatutakoaren arabera.

Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak honakoa egitea egokia dela adierazi

du:

1. Honakoaren aldeko irizpena emango da: Soinu Atadia Fundazio Publikoaren aurrekontuko kredituak aldatzeko 1/2005 espedientea, irizpen honetan aipatutakoa, hain zuzen ere.
2. Kredituak aldatzeko espedientea onesteari buruzko puntua Udalaren osoko bilkurak egiten duen hurrengo bileraren aztergaien zerrendan sartuko da.
3. Espedientea jendaurrean azalduko da hamabost egunez, eta horretarako horri buruzko iragarkia argitaratuko da Bizkaiko Aldizkari Ofizialean. Epe horretan interesdunek espedientea aztertu eta egoki deritzen erreklamazioak egin ahal izango dituzte. Espedientea jendaurrean azaltzeko epean alegaziorik aurkeztuko ez balitz, berori behin betiko onetsizat hartuko litzateke, hori guztia Tokiko Erakundeen Aurrekontuari buruzko abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauaren 15. artikuluan ezarritakoa aintzat hartuta.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK eta ALKATETZA-UDALBURUTZAK **berretsi egin dute** goian adierazitako irizpena. Bada, gai hau Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeko ipini beharko da.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak, **aho batez**, Soinu Atadia Fundazio Publikoaren aurrekontuko kredituak aldatzeko 1/2005 espediente (mota: kreditu-gehigarria) onestea **erabaki du**, Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziaren irizpenean adierazten den eran.

9.- PINOSOLOKO 43. ARLOAN BABES OFIZIALEKO 3 ETXEBIZITZA ESKURATZEA, GIZARTE HELBURUAK BETETZEKO: Tokiko Gobernu Batzarrak 2005eko azaroaren 29an egindako bileran onetsi zuen Alkatetza-Udalburutzaren 754/2005 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak 2005eko azaroaren 23an hartutako 188. irizpenak honakoa dio:

2004-05-25ean Tokiko Gobernu Batzarrean hartu zen Alkatetzaren 424. ebazpenaren bitartez, Pinosolon babes ofizialeko 3 etxebizitza gordetzea erabaki zen, prekarioan lagatzeko AVIFES eta URIBE-KOSTA elkarteei eta FORU ALDUNDIARI. Aipatutako etxebizitza horien erabilera eta gozamena gizarte helburuetarako erabiltzeari lotu zitzaion.

Aztertu da Udalaren Bulego Teknikoak egindako txostena, etxebizitza horiek eskuratzeko kostua 377.972,91 €-koa dela dioena.

EAJ-PNVko Javier Bidea Molinillo jaunak adierazi du beharrezkoa dela etxebizitza horiek eskuratzeko eta, era berean, Alkatetzaren 424/04 ebazpena aipatu du. Halaber, gizarte helburuetarako erabili behar direla esan du baina, hala ere, etxebizitzetako bi Uribe-Kosta elkarteari eta bat Avifes elkarteari lagatzeko proposamena egin du.

Ondasunen Araudiaren 11. artikulua dio estatuko edo autonomiako organoaren txostena eskatuko dela eskuratzeko zenbatekoa udalbatzaren aurrekontuko baliabide arrunten % 1 baino gehiagokoa dela. Hori dela eta, kasu honetan ez da txostenik behar, eskuratzeko prezioaren zenbatekoa ez delako adierazitako portzentajea baino handiagoa.

Aurrekontuan kreditu nahikoa dago hemen aztertzen gabiltzana eskuratzeko, ondarea eskuratu edota hirigintzako birgaikuntzak egiteko kredituaren erreserbaren pentzura, Udondoko bulebarreko eraikuntza eskubideak transmititu zirelako (2/277/2004 erreserba).

Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak honakoa egitea egokia dela adierazi du:

1. Babes Ofizialeko 3 Etxebizitza eskuratzeko zaizkio Viviendas de Vizcaya S.A. merkataritza-etxeari Pinosoloko 43. Arloan. Horietako bi Uribe-Kosta elkarteari eta bat Avifes elkarteari lagako zaizkie, gizarte helburuetarako erabiltzeko.
2. Alkate-udalburua ahaldunduko da, eskuratutako etxebizitzaren eskriturak Udalaren alde egiteko beharrezko agiri publiko zein pribatu guztiak gauza ditzan.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

3. Etxebizitzak eskuratzeari buruzko puntua Udalaren osoko bilkurak egiten duen hurrengo bileraren aztergaien zerrendan sartuko da.

EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK eta ALKATETZA-UDALBURUTZAK **berretsi egin dute** goian adierazitako irizpena. Bada, gai hau Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeke ipini beharko da.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak **aho batez erabaki du** Babes Ofizialeko 3 Etxebizitza eskuratuko zaizkiola Viviendas de Vizcaya S.A. merkataritza-etxeari Pinosoloko 43. Arloan, 377.972.91 €-ko zenbatekoan. Horietako bi Uribe-Kosta elkarteari eta bat Avifes elkarteari lagako zaizkie, gizarte helburuetarako erabiltzeko, Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziaren irizpenean azaldutakoaren arabera. Era berean, Alkate-udalburua ahaldunduko da, eskuratutako etxebizitzaren eskriturak Udalaren alde egiteko beharrezko agiri publiko zein pribatu guztiak gauza ditzan.

10.- ALKATETZAREN 869/2005 DEKRETUAREN BERRI EMATEA. HORREN BITARTEZ IÑAKI GOIKOETXEA GORDO ZINEGOTZI ETA OGASUN ETA KONTUEN INFORMAZIO BATZORDE BEREZIKO BURUARI ESKUORDETU ZAIO IKEA BARRI PLAZAN DAUDEN GARAJE-PARTZELAK SALTZEKO ESKRITURA PUBLIKOAK SINATZEKO ESKUMENA: Tokiko Gobernu Batzarrak 2005eko azaroaren 22an egindako bileran onetsi zuen Alkatetza-Udalburutzaren 718/2005 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziak 2005eko azaroaren 16an hartutako 177. irizpenak honakoa dio:

Aztertu da Alkatetzaren 869/2005 Dekretua; honakoa dio, hitzez hitz:

869. DEKRETUA:

Tokiko Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudia onetsi zuen azaroaren 28ko 2568/1986 Legegintzazko Errege Dekretuaren 43, 44 eta 45. artikuluetan xedatutakoaren arabera, alkateak bere eskumenak eskuordetu ditzake, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.3 eta 71. artikuluetan adierazitakoak izan ezik, aipatutako araudian adierazitako terminoei jarraituz.

Eskuordetze berezia egin behar da **IÑAKI GOIKOETXEA GORDO zinegotzi eta Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Berezi**ko burua baimentzeko, Ikea Barri plazan dauden garaje-partzelak saltzeko eskritura publikoak sinatzeko funtzioak har ditzan. Horiek, aipatutako partzelak besterentzeko enkante publikoaren espedientea amaitu ostean adjudikatu dira.

Tokiko Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiaren 43. eta hurrengo artikuluetan xedatutakoaren arabera,



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

HONEN BITARTEZ, honakoa erabaki dut:

1. Eskuordetu egingo da Ikea Barri plazan dauden garaje-partzelak salerosteko eskriturak sinatzeko eskumena, enkante publikoaren bitartez besterendu diren partzelen behin betiko adjudikaziodunak izan diren lizitatzailerei saltzeko.

2. Tokiko Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiaren 44.2 artikuluan xedatutakoa betetzeko, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eskriturak sinatzeko eskumenaren eskuordetzea.

3. Tokiko Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiaren 44.4 artikuluan xedatutakoa betetzeko, eskuordetze hau udalaren osoko bilkurari jakinaraziko zaio, egingo duen hurrengo batzarrean.

Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Berezia jakinaren gainean eta ados geratu da, eta egoki iritzi dio eskuordetzeko dekretua udalaren osoko bilkuraren hurrengo batzarrerako eguneko aztergai zerrendan sartzeari.

EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK eta **ALKATETZA-UDALBURUTZAK berretsi egin dute** goian adierazitako irizpena. Bada, gai hau Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeko ipini beharko da.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak Alkatezaren 869/2005 Dekretuaren jakinaren gainean geratu dela **erabaki du**. Horren bitartez Iñaki Goikoetxea Gordo zinegotzi eta Ogasun eta Kontuen Informazio Batzorde Bereziko buruari eskuordetu zaio Ikea Barri plazan dauden garaje-partzelak saltzeko eskritura publikoak sinatzeko eskumena.

11.- LAMIAKO-TXOPOETAKO BBBPBn HUTSIK DAGOEN GUNEAREN HIRIGINTZA KUDEAKETAK ERAGINDAKO ONDASUN ETA ESKUBIDEEN OKUPAZIOAREN AURREKO AKTAK EGITEKO ESKUMENA JON LOIZAGA CAYERO ALKATEORDEARI ESKUORDETZEARI BURUZKO DEKRETUAREN BERRI EMATEA. Tokiko Gobernu Batzarrak 2005eko azaroaren 29an egindako bileran onetsi zuen Alkateza-Udalburutzaren 740/2005 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak 2005eko azaroaren 23an hartu zuen 187. zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

Azaroaren 18ko 897/05 dekretuaren edukia irakurri da. Honakoa dio, hitzez hitz:

“Tokiko Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiaren 43, 44 eta 45. artikuluetan xedatutakoaren arabera, alkateak bere eskumenak eskuordetu ditzake, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.3 eta 71. artikuluetan adierazitakoak izan ezik, aipatutako araudian adierazitako terminoei jarraituz.

HONEN BITARTEZ, honakoa erabaki dut:



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

- 1.- Eskuordetze berezia egingo zaio Jon Loizaga Cayero alkateordeari, Lamiako-Txopoetako BBBPBn hutsik dagoen gunearen hirigintza kudeaketak eragindako ondasun eta eskubideen okupazioaren aurreko aktak egiteko, 2005eko azaroaren 21etik aurrera.
- 2.- Interesdunari jakinaraziko zaio, onar dezan.
- 3.- Eskuordetze hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.
- 4.- Udalaren osoko bilkurari honen berri emango zaio, egingo duen hurrengo batzarrean.”

Hirigintza, Etxebizitza, Garraio eta Ingurumeneko Informazio Batzordea jakinaren gainean eta ados geratu da.

EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK **jakinaren gainean eta ados geratu da** hitzez hitz idatzitako dekretuarekin. Bada, gai hau Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeke ipini beharko da.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak Alkatetzaren 897/2005 Dekretuaren jakinaren gainean geratu dela erabaki du. Horren bitartez Jon Loizaga Cayero alkateordeari eskuordetu zaio Lamiako-Txopoetako BBBPBn hutsik dagoen gunearen hirigintza kudeaketak eragindako ondasun eta eskubideen okupazioaren aurreko aktak egiteko eskumena.

12.- LOREZAINZAKO ZERBITZUEN IKUSKATZAILE LANPOSTUAREN BALORAZIOA: Tokiko Gobernu Batzarrak 2005eko azaroaren 29an egindako bileran onetsi zuen Alkatetza-Udalburutzaren 751/2005 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Barne Araubideko Informazio Batzordeak 2005eko azaroaren 22an hartu zuen 120. zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

Urriaren 27ko osoko bilkuran onetsi egin zen izenburuan adierazitako lanpostua sortzea, lanpostuen zerrenda aldatzeko testuinguruaren barruan, zenbait udal zerbitzu optimizatzearen.

ICSA SOCIOS CONSULTORES enpresarengana jo da lanpostu berri hau balora dezan eta, aztertu ondoren, honakoa izan da bere proposamena:

- Oinarrizko soldata: D taldearen berezkoa.
- Lanpostu-mailako osagarria: 19. maila.
- Berariazko osagarria: 9. tartea.

Barne Araubideko Informazio Batzordeak aldeko irizpena eman dio proposatutako balorazioari. Horrela bada, Udalaren osoko bilkurak, egingo duen hurrengo batzarrean aztertu beharko du, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1982 Legearen 22.2.i) artikuluan adierazitakoa aplikatuz.

EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK eta ALKATETZA-UDALBURUTZAK **berretsi egin dute** goian adierazitako irizpena. Bada, gai hau Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeke ipini beharko da.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak, **aho batez onetsi du** lorezaintzako zerbitzuen ikuskatzaile lanpostuaren balorazioa, Barne Araubideko Informazio Batzordearen irizpenean adierazitako terminoetan.

13.- TOKIKO AGENDA 21eko BATZORDEA ERATZEA: Tokiko Gobernu Batzarrak 2005eko urriaren 25ean egindako bileran onetsi zuen Alkatetza-Udalburutzaren 654/2005 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Barne Araubideko Informazio Batzordeak 2005eko urriaren 18an hartu zuen 106. zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

Udal Gobernuko ordezkariak adierazi du gai honi buruzko egoera-diagnostikoa azaltzen zuen lana aurkeztu ostean, ekintza plana prestatu behar dela. Beraz, egokitzat hartu da batzorde egonkor bat sortzea, udal talde bakoitzaren ordezkariak izango duela eta aurretiaz ezarritako egun eta orduetan aldizkako batzar-egutegia edukiko duela. Gauzak horrela, PSE-EE-PSOeko ordezkariak adierazi du batzar horiek asteartetan izatea komeni dela. Barne Araubideko Batzordearen batzarrak normalean hamabost egunean behin egiten dira, eta horrela, Batzorde horrek batzarrik ez duen asteetan egin ahal izango beste batzar hauek.

Barne Araubideko Informazio Batzordeak egoki iritzi dio, Tokiko Agenda 21i buruz eman diren agiriak aztertu ostean, aipatutako batzordea eratzeari. Tramite horrek osoko bilkuraren erabakia beharko du eta, bertan, Batzordearen eraketa eta funtzionamenduari eragiten dioten zehaztasun guztiak ezarri beharko dira.

EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK **berretsi egin du** goian adierazitako irizpena eta ALKATETZA-UDALBURUTZAK Tokiko Agenda 21eko Informazio Batzorde Berezia eratzeari buruzko **dekretua egin du**. Hona hemen bere kideak:

- Burua: Karmelo Sáinz de la Maza Arrola jn.
- Buruordea: Ernesto Angel Trigueros Sta. Coloma jn.
- Mahaikideak: Eneko Arruebarrena Elizondo jn.
Jabier Bidea Molinillo jn.
José Manuel Toledo Cañamero jn.
Xabier Olabarrieta Arnáiz jn.
Rubén Belandía Fradejas jn.
- Idazkaria: Leire Pertika Lopategi and.

Modu berean **erabaki du**, Barne Araubideko Informazio Batzordean adierazi zen bezala, batzarrak asteartean egingo direla 18:30ean, Barne Araubideko Informazio Batzordearen batzarrik ez dagoen asteetan, beharrezkotzat hartzen denean eta buruak deialdia egin ostean. Erabaki hau Udalaren osoko bilkurak berretsiko du, egingo duen hurrengo batzarrean.

Ondoren, Tokiko Agenda 21 Batzordeko zinegotzi titularren ordezkariak izenda ditzatela adierazi die alkate-udalburuak talde politikoei, titularra joan ezin bada ordezkari horiek joan daitezela Batzordera.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Orduan, ordezkook izendatu dituzte, hona hemen:

EAJ-PNVko Ainara Urbietta Bergara and.
EAJ-PNV Bixente Barreiro Asensio jn.
EAJ-PNVko Guillermo Mateo Kareaga jn.
PSE-EE-PSOeko Nieves Hurtado Urtiaga and.
PPko Aiala Eguluz Rodriguez and.
EB-Berdeak taldeko Iñaki Gomendiorrutia Sáinz jn.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak **aho batez onetsi du** Barne Araubideko Informazio Batzordeak proposatuta Tokiko Gobernu Batzarrean egin diren izendapenak, bai eta Talde Politikoen bozeramaileek ordezkoen esleipenei buruz egindako izendapenak ere.

14.- LEIOA UDALERRIAREN GIZARTE, EKONOMIA ETA INGURUMEN DIAGNOSIA ONESTEA

Tokiko Gobernu Batzarrak 2005eko azaroaren 29an egindako bileran onetsi zuen Alkatetza-Udalburutzaren 760/2005 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Tokiko Agenda 21 Informazio Batzorde Bereziak 2005eko azaroaren 15ean hartu zuen 2. zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

Nacho Gómez-Oraá jauna egon da Batzordean, Leioako Tokiko Agenda ezartzeko laguntza teknikoaren zerbitzuak ematen dituen ingurumeneko aholkularitza-etxearen ordezkari izan. Berak azaldu ditu diagnosiaren zehaztasunak.

Era berean, Leioako Behargintzako zuzendariak adierazi du aurkeztutako diagnosi hori izango dela Herritarren Partaidetza Foroetako deialdiak egiteko zein horien eremuko eztabaidak egiteko hasierako lan tresna. Beraz, udalaren osoko bilkurak horren gaineko iritzia eman beharko du, egingo duen hurrengo batzarrean.

Tokiko Agenda 21 Informazio Batzorde Bereziak aldeko irizpena eman dio Leioa udalerraren gizarte, ekonomia eta ingurumen diagnosiari. Hala ere, udalaren osoko bilkurak horren gaineko iritzia eman beharko du, egingo duen hurrengo batzarrean.

EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK eta **ALKATETZA-UDALBURUTZAK berretsi egin dute** goian adierazitako irizpena. Bada, gai hau Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeko ipini beharko da.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak **aho batez onetsi du** Leioa udalerraren gizarte, ekonomia eta ingurumen diagnosis Tokiko Agenda 21 Informazio Batzorde Bereziaren irizpenean azaldutako termino berberetan.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

15.- AALBORG + 10 KONPROMISOAK ONESTEA. Tokiko Gobernu Batzarrak 2005eko azaroaren 29an egindako bileran onetsi zuen Alkatetza-Udalburutzaren 761/2005 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Tokiko Agenda 21 Informazio Batzorde Bereziak 2005eko azaroaren 15ean hartu zuen 3. zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

Leioako udalaren osoko bilkurak, 2004ko otsailean onetsi zuen Aalborgeko Gutuna (Europako Hirien Iraunkortasuneranzko gutuna). Konpromiso horren helburua udalerriko gizarte, ekonomia eta ingurumen diagnosia egitea zen. Diagnostika egin eta konpromisoa hartuta, udal egiturak iraunkortasunaren aldeko udalaren ekintza plana diseinatu behar du eta, hori, **Aalborg + 10 konpromisoak** onestearekin gauzatuko da. Bada, Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeke ipini beharko dira.

Tokiko Agenda 21 Informazio Batzorde Bereziak aldeko irizpena eman dio Aalborg + 10 konpromisoak hartzeari. Hala ere, udalaren osoko bilkurak horien gaineko iritzia eman beharko du, egingo duen hurrengo batzarrean.

EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK eta ALKATETZA-UDALBURUTZAK **berretsi egin dute** goian adierazitako irizpena. Bada, gai hau Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeke ipini beharko da.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak **aho batez erabaki du** Aalborg +10 konpromisoak onestea, Tokiko Agenda 21 Informazio Batzorde Bereziaren irizpenean azaldutako termino berberetan.

16.- TOKIKO EKINTZA PLANA DISEINATZEKO PROZESUA ABIARAZTEKO KONPROMISOA ONESTEA. Tokiko Gobernu Batzarrak 2005eko azaroaren 29an egindako bileran onetsi zuen Alkatetza-Udalburutzaren 762/2005 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Tokiko Agenda 21 Informazio Batzorde Bereziak 2005eko azaroaren 15ean hartu zuen 4. zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

Leioako Behargintzako zuzendariak Leioa udalerriko Tokiko Ekintza Plana egitean landu beharreko oinarritzko alderdiak azaltzen dituen gidioia eman die bertaratu direnei. Udalaren osoko bilkurak horren gaineko iritzia eman beharko du egingo duen hurrengo batzarrean. Ingurumeneko aholkularitza-etxearen izenean, Nacho Gómez-Oraá jaunak, Tokiko Ekintza Plana egiteko xehetasunak azaldu ditu.

Tokiko Agenda 21 Informazio Batzorde Bereziak aldeko irizpena eman dio Leioa udalerriko Tokiko Ekintza Plana diseinatzeke prozesua abiarazteke konpromisoari. Hala ere, udalaren osoko bilkurak horren gaineko iritzia eman beharko du, egingo duen hurrengo batzarrean.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK eta ALKATETZA-UDALBURUTZAK **berretsi egin dute** goian adierazitako irizpena. Bada, gai hau Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeko ipini beharko da.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak **aho batez onetsi du** Tokiko Ekintza Plana diseinatzeko prozesua abiarazteko konpromisoa, Tokiko Agenda 21 Informazio Batzorde Bereziaren irizpenean azaldutako termino berberetan.

17.- POLITIKARI BAT ETA TEKNIKARI BAT IZENDATZEA, LEIOAKO UDALA UDALSAREA 21 IZENEKOAN SARTZEKO ESKABIDEA EGITEKO. Tokiko Gobernu Batzarrak 2005eko azaroaren 29an egindako bileran onetsi zuen Alkatetza-Udalburutzaren 763/2005 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Tokiko Agenda 21 Informazio Batzorde Bereziak 2005eko azaroaren 15ean hartu zuen 5. zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

Leioako Behargintzako zuzendariak jakinarazi du Leioako Tokiko Agenda 21 ezarri zenean proposatutako helburua 2005eko ekitaldian UDALSAREA 21 Iraunkortasunerako Euskal Udalerrien Sarean sartzea zela. Beraz, sare horretara sartzeko, Leioako Udalaren ordezkari politiko bat eta ordezkari tekniko bat izendatu behar dira, Batzorde Betearazlearen eta Batzorde Teknikoaren batzarretan parte hartzeko. Udalaren osoko bilkurak horri buruzko iritzia azaldu beharko du egingo duen hurrengo batzarrean.

Eneko Arruabarrena Elizondo jaunak azaldu du Matxalen Garcia-Etxabe andrea, gaur egun, prestakuntza jasotzen dabilela Tokiko Ekintza Plana ezartzeko, baina prestakuntza-prozesu hori ez dela 2006ko amaierara arte amaituko. Hori dela eta, arinegi izan liteke Udalsarearen Batzorde Teknikoan Leioako udalaren ordezkaria izateko izendatzeko.

Era berean, alkateak adierazi du kontuan hartu direla Tokiko Ekintza Plana osatzen duten alderdiak eta Udalsarea 21en Batzorde Teknikoaren deialdietan aztertuko diren gaiak. Lurraldearen Konfiguraziotik eta Natur Baliabideetatik hasi eta Gizarte Praktiketara artekoak dira gaiak eta, beraz, ez da beharrezkoa izango profil tekniko zorrotza izatea, kasu honetan adibidez, arkitekto teknikoarena.

Labur eztabaidatu ostean,

Tokiko Agenda 21 Informazio Batzorde Bereziak aldeko irizpena eman dio Ernesto Angel Trigueros S. Coloma jauna izendatzeari UDALSAREA 21 Iraunkortasunerako Euskal Udalerrien Sarearen Batzorde Betearazlean ordezkari politikoa izan dadin, eta Leire Pertika Lopategi andrea izendatzeari aipatutako sarearen Batzorde Teknikoan ordezkaria izan dadin; hala ere, udal teknikari bat ere bertaratu ahal izango da Batzorde Teknikoko deialdietan landuko diren gaiak kontuan hartuta. Udalaren osoko bilkurak horri buruzko iritzia azaldu beharko du egingo duen hurrengo batzarrean.

EBAZPENA



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK eta ALKATETZA-UDALBURUTZAK **berretsi egin dute** goian adierazitako irizpena. Bada, gai hau Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeko ipini beharko da.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak **aho batez erabaki du** Ernesto Angel Trigueros S. Coloma jauna izendatuko dela UDALSAREA 21 Iraunkortasunerako Euskal Udalerrien Sarearen Batzorde Betearazlean ordezkari politikoa izan dadin, eta Leire Pertika Lopategi andrea izendatuko dela aipatutako sarearen Batzorde Teknikoan ordezkaria izan dadin; hala ere, udal teknikari bat ere bertaratu ahal izango da Batzorde Teknikoko deialdietan landuko diren gaiak kontuan hartuta, Tokiko Agenda 21 Informazio Batzorde Bereziaren irizpenean aurreikusitako termino berberetan.

18.- UDALSAREA 21 IRAUNKORTASUNERAKO EUSKAL UDALERRIEN SAREAN PARTE HARTZEKO LEIOAKO UDALAREN ESKABIDEA ONESTEA: Tokiko Gobernu Batzarrak 2005eko azaroaren 29an egindako bileran onetsi zuen Alkatetza-Udalburutzaren 764/2005 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Tokiko Agenda 21 Informazio Batzorde Bereziak 2005eko azaroaren 15ean hartu zuen 6. zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

Leioako udalak UDALSAREA 21 Iraunkortasunerako Euskal Udalerrien Sarean parte hartzeko egin duen eskabide proposamena irakurri du Leioako Behargintzako zuzendariak. Hona hemen:

*“Leioako Udalak, udalerrri iraunkorra brtzeko hartu duen konpromisoari jarraituz, Tokiko Agenda 21 ezartzeko prozesua abiarazi du, Eusko Jaurlaritzak **“2002-2020ko Garapen Iraunkorraren EAEko Ingurumen Estrategia”** ezartzeko hartu dituen plan eta helburuei jarraituz.*

Gauzak horrela, udalak honako urrats hauek eman ditu:

- 1. Aalborgeko gutunari atxiki (2004ko otsailean)*
- 2. Iraunkortasunerako konpromisoari atxiki (2004ko otsailean)*
- 3. Tokiko Agenda 21 (TA21) ezartzeko prozesua abiarazi (2004ko irailean)*
- 4. TA21en Zuzendaritza Batzordea eta udal Lan Taldeak eratu (2004ko urrian)*
- 5. TA21en Segimendu Batzordea eratu (2005eko otsailean)*
- 6. Herritarrek parte hartzeko informazio eta komunikazio bideak ezarri: **Eutsi** aldizkaria eta helbide elektronikoa: agendalocal21@leioa.net*
- 7. Herritarren Partaidetzarako 1. Bilera egin (2005eko uztailean)*
- 8. Gizarte, ekonomia eta ingurumen diagnostia egin (2005eko urrian)*
- 9. Udalerria Aalborgeko konpromisoei atxiki (Aalborg +10)*
- 10. Udalaren osoko bilkurak Tokiko Ekintza Plana diseinatzeko konpromisoa onetsi*
- 11. Teknikari bat eta ordezkari politiko bat izendatu Udalsarea 21en parte hartzeko.*
Emandako urrats eta betetako helburuak kontuan hartuta, udalaren osoko bilkurak, Udalsarea 21 Iraunkortasunerako Euskal Udalerrien Sareari atxikiko eskatu nahi du”

Tokiko Agenda 21 Informazio Batzorde Bereziak aldeko irizpena eman dio UDALSAREA 21 Iraunkortasunerako Euskal Udalerrien Sarean parte hartzeko Leioako udalaren eskabideari, proposatutako terminoetan. Hala ere, udalaren osoko bilkurak horien gaineko iritzia eman beharko du, egingo duen hurrengo batzarrean.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK eta ALKATETZA-UDALBURUTZAK **berretsi egin dute** goian adierazitako irizpena. Bada, gai hau Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeko ipini beharko da.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak **aho batez onetsi du** Udalsarea 21 Iraunkortasunerako Euskal Udalerrien Sarean parte hartzeko Leioako udalaren eskabidea, Tokiko Agenda 21 Informazio Batzorde Bereziaren irizpenean azaldutako termino berberetan.

19.- LEIOAKO UDALAREN HERRI LAN ETA GARRAIO SAILAREN ARTEAN SINATU BEHARREKO "IRISGARRITASUN IRAUNKORRAREN ALDEKO ETA LEIOAKO HIRIGUNEAN BIZI-KALITATEA HOBETZEKO HITZARMENA" IZENEN AGIRIA ONESTE. Tokiko Gobernu Batzarrak 2005eko azaroaren 29an egindako bileran onetsi zuen Alkatetza-Udalburutzaren 730/2005 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak 2005eko azaroaren 23an hartu zuen 177. zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

Udalaren Zerbitzu Teknikoek jakinarazi dute Leioako Udalaren eta Herri Lan eta Garraio Sailaren artean egindako hainbat elkarrizketen ondorioz, administrazio bien artean sinatuko den agiria adostu dela, *"Irisgarritasun iraunkorraren aldeko eta Leioako hirigunean bizi-kalitatea hobetzeko hitzarmena"* izenekoa. Honakoak dira bere helburuak:

1. Zirkulazioa lasaitzea Avanzada errepidearen alboetako bideetan.
2. Alboetako loturak hobetzea Artatza, Mendibile eta Pinosolon.
3. Avanzada errepidearen hiri integrazioa bultzatzea, batez ere lubakiko tarteetan, teknologiaren bilakaerak baimentzen dituen jardueren bitartez, Avanzada errepideko tunelaren segurtasuna txikiagotu gabe.
4. Udalak alboetako bideetan jarduerak egiteko aukera emango duten azterlanen garapenarekin lankidetzan aritzea, zirkulazioaren berrantolamenduak erraztuz, alboetako bide horien inguruko hirigintzako garapenen ondorioz.
5. Astrabuduko zirkulazio bide berriak ekarriko dituen sinergiak aprobetxatzea, Erandio eta Getxo arteko itsasadarraren fatxadan dauden industrialdeetara doazen kamioien ibilbideak bertatik bideratzeko.

Horretarako, honako konpromiso hauek aipatu dira:

- **Bizkaiko Foru Aldundiaren konpromisoak:**

- * Proiektua egin eta Avanzada errepideko pasabidearen obra burutu eta zuzenduko du.
- * Bere aurrekontuaren pentzura burutuko du Astrabuduko saihebidetara, Leioako bideekin lotura izango duela bermatuz eta administrazio bien artean adostutako trazadurari jarraituz.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

- * 2.000.000 euro emango ditu hitzarmen honen helburua diren zirkulazioa arintzea eta alboetako bideak hobetzea finantzatzeko, bai eta Mendibileko pasabidearen eraikuntza finantzatzeko ere.
- * Leioako udalarekin batera, dagoen teknologiaren arabera, Avanzada errepidea Leioako hiri-gunetik igarotzen den lubakien tarteetan hiri integrazioa hobetzeko proiektua egiteko aukera ematen duten irtenbideak bilatzen saiatuko da; horrek inola ere ez du murriztuko sutea egotekotan egon beharreko segurtasuna tarte horietan.
- * Avanzada errepidearen alboetako bideen titulartasuna lagako dio Leioako udalari, erantsitako agiri grafikoetan adierazitako kilometro-puntuen artekoena, hain zuzen ere.
- * Udondoko loturaren titulartasuna zainduko du eta, ondorioz, bere garaian berau Astrabuduko saihebidarekin lotzeko egingo den loturaren titularra ere izango da.

- **Leioako Udalaren konpromisoak:**

- * Avanzada errepidearen alboetako bideen titulartasuna jasoko du, erantsitako agiri grafikoetan deskribatutakoena, hain zuzen ere.
- * Pinosoloko pasabidearen eraikuntza aurreikusiko du Leioako HAPOn 43. arloaren hirigintza-kudeaketaren eremuan, bertako toki sistema gisa, bere gain hartuta berau egiteko ardura.
- * Mendibileko pasabidea eraikitzeko konpromisoa.
- * Alboetako bideak hiri-bideak izateko atondu eta transformatuko ditu.

Ostean, bai Batzordeko buruak bai udal arkitektoak, hitzarmenaren zirriborroan azaldutako hainbat klausulen xehetasunak garatu eta azalpenak eman dituzte. Horren kopia bana eman zaie, era berean, talde politiko bakoitzari.

Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak, EAJ/PNV eta EAKo ordezkarien aldeko botoaz, aldeko irizpena eman dio Udalaren osoko bilkurak hitzarmenaren zirriborroaren edukia onesteari. Era berean, alkate-udalburua ahaldundu da, bertatik eratorritako agiri publiko zein pribatu guztiak gauza ditzan. PSE/EE/PSOE, PP eta EB-Berdeak taldeetako ordezkariak jakinaren gainean geratu baino ez dute egin. Gai hau aztertuko den osoko bilkuran azalduko dituzten euren iritzi eta irizpideak.

EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK eta ALKATETZA-UDALBURUTZAK **berretsi egin dute** goian adierazitako irizpena. Bada, gai hau Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeko ipini beharko da.

PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak honakoa adierazi du:

Bere esku-hartzea, onesteko proposatzen den hitzarmenaren lehenengo orrian dagoen esaldi baten aipamena eginez hasi nahi du. Esaldiak dio, garraioa Bilboko metropoliaren udalerrien arteko interkonexioa bermatzen duen sektore estrategiko bat dela, baina, era berean, horrek ezin duela aipatutako eremuko inongo herri barruko auzotarren bizi-kalitatearen galtzea eragin. Aditzera eman du, bistan denez, Avanzadak Leioako herritar askorentzat bizi-kalitatearen murrizketa garrantzitsua dakarrela, kutsadura akustiko eta ingurumenaren kutsaduraren gune garrantzitsua delako, egunero ia ehun mila ibilgailu, autoak eta kamioak, Avanzadatik igarotzen direlako eta Leioako erdialdea zeharkatzen dutelako, hori da gaur egun dagoen egoera, baina herritarrekiko kutsadura akustikoa eta ingurumenaren kutsadura-egoerak txarrera egingo du hurbil dagoen etorkizunean, gaur



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

egun Avanzadak estaltzen duen gunetik kanpo eta lubaki gisa dagoen ingurutik kanpo geratzen diren eta Avanzadarekin orain mugakide diren tarreak guztiz urbanizatuta daudenean.

Adierazi du, hitzarmen horren ondoren bizi-kalitatearen galtze hori, edo hitzarmen horrek proposatzen duena egin ondoren, bizi-kalitatearen galtze horrek neurri handi batean jarraituko duela, haiek horrela izango dela ulertzen dute, eta zentzu horretan, zalantzarik gabe, hitzarmenerako proposatzen den izenburuak ez diola hitzarmenaren edukia errealitateari erantzuten ulertzen dute. Hauxe da hitzarmenaren izenburua: *"Irisgarritasun iraunkorraren aldeko eta Leioako hirigunean bizi-kalitatea hobetzeko hitzarmena"*; ulertzen dute hitzarmena osotasunean hartuta ez datorrela bat daukan izenburuarekin.

Aditzera eman du, lehenengo eta behin hitzarmenean planteatzen diren konponbideak, esaterako alboetako kale-bideak lagatzea, Leioak hiri-bilbearekin Astrabuduko etorkizuneko saihebidetaren konexioaren soluzioa, uste dute alderdi horiek positiboak izan daitezkeela eta Leioarako bizi-kalitatearen hobekuntzan aurrerapen bat ekar dezaketela. Aditzera eman du, Avanzadan zehar hiru gaineko pasabide eraikitzea, Avanzadako bazter desberdinen arteko konexio-arazoari konponbide bat aurkitzeko bidea izan daitezkeela, baina uste dute arazo hori konpon zitezkeela gaur arte praktikoki erdi baztertutako egoera batean egon diren lurpeko pasabideen hobekuntzaren bitartez, eta ulertzen dute gaineko pasabide horiek sor dezaketena baino inbertsio ekonomikoagoa dela eta Avanzadako bazterren arteko lotura hori konpondu ahal izango zela, baina ulertzen dute gaineko pasabideak lurpeko pasabide batzuk baino konponbide hobea izan daitezkeela, alderdi ekonomikotik konponbide hobea izan ez arren, eta, bestalde, Aldundiak eta udalak gaineko pasabide horiek eraikitzeko ordaindu behar dutena, Avanzadatik geratzen denaren estalketa finantzatzen hasteko erabil zitezkeela, baita hiriaren erdialdearen estalketa eta alboetara hedatzeko ere.

Adierazi du, bestalde, hitzarmen honetan Avanzadaren estalketa osoa hiriko erdialdetik igarotzean, zehaztu gabe dagoen paragrafo batean agertzen dela, etorkizunean aztertzeko geratzen dena, paragrafo zalantzarria da eta ziur aski hamarkadetan Avanzadak sortutako zaratak eta ingurumenaren kutsadura jasaten jarraitzea kondenatzen du Leioa.

Aditzera eman du Bilbon, gure hiriburuan, trenbide-lubakiak estaltzen hasi direla ikusten dela, Sabino Aranatik Bilborako sarreraren eraispena aurreikusita dagoela, lan garrantzitsuak dira, konponbide garrantzitsuak, eta bistan denez, diru asko balio dute, baina konponbideak bilatu dira ikuspuntu ekonomikotik bideragarriak izan daitezten eta horrek bai hiritarrentzako bizi-kalitateak benetako hobekuntzak ekarriko ditu, proiektu horiek hemen aurkezten den hitzarmen honek daraman izenburua bai merezi dute.

Adierazi du Leioan, ordezkaritza politikoko udalerriaren hirigintza-arazo nagusiari konponbideak bilatzeko behar besteko borondatearik ez dutela ematen duela. Egia eta errealitate tamalgaria da, sei urte eta erdi udalerriko alkate gisa egon ondoren eta Gobernu-talde ezberdinen ondoren, hitzarmen hori alkateak eta Gobernu-talde ezberdinek lortzen duten guztia dela, eta bistan denez, ez dute horren aurka egingo haien ustez positiboak izan daitezkeen elementu batzuk dituelako, esaterako Astrabuduko etorkizuneko saihebidetaren konexioaren soluzioa, Avanzadako alboetako kale-bide gehien titulartasuna udalari eskualdatzea eta gaineko pasabideak neurri batean izan daitezkeen konponbide iragankor positiboa, baina, zalantzarik gabe, uste dute hitzarmen hori ez dela Leioak behar duen erantzuna, ezta Leioak merezi duena ere; eta horregatik, behin eta berriro esaten du kontrako botoa emango dutela, baina, jakina, inola ere ez dutela hemen proposatzen den testuaren aldeko botoa emango.

PSE-EE-PSOeko Susana González Rómulo andreak honakoa adierazi du:

Jorrotzen ari diren puntua pixka bat kokatzeko, lehenengo eta behin esan nahi du Avanzada ez dela Leioaren arazo bat, arazoa dela. Haiek uste dute, Leioako udalerririk bizi duen



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

egoera, bitan banatzen duen errepide batekin, udalerriak momentu honetan daukan arazorik garrantzitsuena dela, bere talde politikoaren ikuspuntutik behintzat.

Adierazi du ez dakiela atzera egitea merezi duen, pentsatzen du ez duela gehiegi merezi, baina uste du haiek esan behar dutela garai hartan haiek, momentu hartan zeudenak, Avanzadaren aurkako iritzia azaldu zutela eta uste du arrazoia zutela, gaur zenbait urte igaro ondoren Avanzada arazoa dela ikusten dutelako eta izango ez balitz, hitzarmen hori ez litzateke mahai gainean egongo eta ez luke eztabaida hau sortuko.

Aditzera eman du, haiek ezin dutela hitzarmena onartu hitzarmena irakurtzen dutenean eta Hirigintza Batzordearen azalpenak entzuten dituztenean sentsazio hau geratzen zaielako: etsipenezko sentsazio bat, irabazi dietela eta Avanzadak dagoeneko konponbiderik ez duela eta ahal diren adabakiak jartzen saiatuko direla. Haiek uste dute, Leioako Udalak eta Leioak Udalerriak eta haien ordezkariak ezin dutela etsi gai honen aurrean. Haiek esan behar dute oso garestia den morrontza bat urte askotan ordaintzen ari direla. Leioa hogeita bederatzita mila edo ia hogeita hamar mila biztanle dituen herri bat da, baina Avanzada, PPkoa den Xabier Olabarrieta jaunak azaldu duen bezala, ez da Leioako hogeita hamar mila biztanleen errepide bat, Avanzada hirigintzarako eta Bizkaiko lurraldearen ordenamendurako funtsezkoa eta garrantzitsua den errepide bat da, eta Bizkaiko Foru Aldundiak Leioaren arazoa konpontzeko ematen duen konponbidea ezin da izan 2.000.000 euro ematea, kopuru horrek itxura ona eduki arren, denok dakigu obra zibil batean ez dela gehiegi harritzen duen kopuru bat.

Bere esku-hartzea bukatzeko adierazi du, berak jadanik bazekiela Gobernu-taldeko bozeramaileak kale-bideen emakidari, gurpilezko trafikoaren konponbideari eta abarri buruzko esku-hartzean esango zuena, baina berak ez duela hitzarmenak dituen bertuteez hitz egingo, eta, bistan denez, hitzarmen bat egiten bada ez dela guztiz txarra izango, abantailak egongo direla, baina Leioak duen arazoi ez zaiola gaur onartu nahi den hitzarmenean irtenbidea bilatzen, "Irisgarritasun iraunkorraren aldeko eta Leioako hirigunean bizi-kalitatea hobetzeko hitzarmena" izenburuak ez duelako hitzarmenak dakarrena islatzen, baina gainera Leioako arazoa urte batzuk barru ez egotea gustatuko litzaioke, baina existituko denaren beldur da eta Leioa metrorik gabe geratuko da, Avanzadaren estalketarik gabe eta horregatik Gobernu-taldeari Leioako arazoa ez dutela konpondu esatea beste erremediorik ez dute.

EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo jaunak honakoa adierazi du:

Konbentzitzen ez duten izenbururik mantentzeko alde aurretiko joera berezirik ez duela eta, izan ere, izenburua aldatzea arazo bat izango balitz eta esatea hitzarmenaren bitartez udalak bere gain hartzen dituela Avanzadaren alboetako bide guztiak, eta hori hitzarmenaren edukia dela azaltzen dutenarekin islatuko balitz, oraintxe bertan aldatuko lukeela, baina susmoa du izenburuaren arazo bat ez dela, baizik eta jarduketak jakin batzuei ezezko botorik eman ezin zaielako arazo bat dela, baina politika dela-eta baiezko botoa ere ezin dute jaso. Aditzera eman du, halaber, hitzarmenaren edukian inola ere ez dela esaten Avanzadaren arazotzat aipatu duten hori konpontzen ari direla, zinegotzia den Jesús Bilbao Curiel jaunak esaten zuen bezala, Avanzadaren arazoak konponbide bat duela pentsatzen duenak ez daki zertaz ari den, Avanzadak konponbide txiki asko dituelako; hortaz, hitzarmena inola ere ez da atzera pauso bat, gaur egungo arazoei gaur egungo konponbideak ematen dizkielako eta konpondu gabe dauden arazoak identifikatzen dituelako, eta hori aurrerapauso bat dela uste du orain arte daukatenarekiko, eta, hain zuzen, hitzarmenean oinarrituta sinatutako dokumentu bat egongo da. Dokumentu horretan, arazoa identifikatuko da eta Aldundiak arazo bat duela bere gain hartzen duen konpromisoa agertuko da, eta benetan bere gain hartzen ari dena alboetako bideen titulartasuna da, garrantzitsuak izan diren beste gauza batzuekin batera, esate baterako, Astrabuduarekin ingurubidearen konexioaren gaia, orain Aldundiak ordainduko duena, baina hitzarmena garrantzitsua da eskubidezko alboetako bideak bere gain hartzeko aukera dakarrelako;



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

izan ere, jadanik bazegoen baina aipatutako bideak ezin ziren berrantolatu eta orain konpondu ahal izango da altzairu-elementuak jarriz eta gainera, hitzarmenaren bitartez dauden lurpeko pasabideak ordezkaturako dituzten gaineko pasabide bi egingo dira, baina Avanzadaren arazoa existituko da, alboetako bideak hartu arren, baina arazoa identifikatzen dela da garrantzitsuena, horrek konponbide bat benetan behar duela idatziz dakarren konpromiso bat dagoela; horrez gain, adierazten da garrantzitsua iruditzen zaiola hitzarmenean estalketaz hitz egiten dela, horrek planteatzen dituen arazoaren jakinaren gainean egonda.

Jarraian adierazi da, hitzarmen horren bitartez egintza bakar batean ezin dela Avanzadaren arazoa konpondu, baizik eta egintza-segida bat egon beharko dela arazoa hobetzen joan dadin; beraz, hitzarmen honekin atzo baino hobeto daude, ezeri uko egin gabe gauzak lortzen direlako, eta Hirigintza Batzordean Xabier Olabarrieta jaunak azaldu zuen bezala gaur egun hobekuntza horiek lortu ahal izan dira, baina Leioako Udalean eta Aldundian ezartzen diren gehiago berriak badaude berriro eta Avanzadaren makro-estalketaren proposamen bat egiteko gai baldin badira, ba primeran, baina gogoratu behar da estalketa horrekin, Avanzadaren maxi-estalketa horrekin PP taldeak orain dela bi urte hauteskunde-programa bat egin behar zuela, eta herriak ez du sinesten, momentu honetan ezinezkoa dela badakielako, adieraziz lau zinegotzi direla eta Batasuna egongo balitz PP taldeak hiru zinegotzi izango zituela. Aditzera eman dio, halaber, hitzarmen honek ez duela baliogabetzen bestelako edozein proposamen, ezta edozein hobekuntza ere; hortaz, hiru urte barru, gainera, estalketari buruzko proiektu serio bati buruz hitz egin badaiteke eta burutu ahal bada, egin egingo da, Aldundiaren eta udalaren artean artikulatzen den konponbidea gauzatzeko konpromisoa dagoelako.

Bere esku-hartzea bukatu du, hitzarmen hori momentu honetan daukatenarekiko aurrerapen bat dela berriro esanez, herritarrek gaur egun planteatzen dituzten eskariei konponbideak emateko eta hobetzeko aukera emango duela, eta horrela, pixkanaka-pixkanaka helburuak lortzen joango direla.

Eako Ernesto Ángel Trigueros Santa Coloma jaunak honakoa adierazi du:

Azaldu nahi du bere garaian Avanzadaren proiektua EAri ere ez zitziola gustatu, beno, beharbada nahastuta egongo dela, baina artxiboak ikusi baino ez dagoela. Aditzera eman du, hala ere, esan nahi duena dela gustukoa ez zela eta EAren barruan jende asko horren aurka zegoela; baina konponbide bat zela ere baloratu behar da eta geldiezina zen gauza bat zela eta orain uste du gutxi gorabehera dagoeneko Avanzada finkatuta dagoela, orain ez delako berriz beteko eta herria zegoen bezala utz dezatela esango.

Adabakien konponbideei dagokienez, aditzera eman du, eskala handian abantaila bat dela, baina ez Leioarentzat, Leioa zeharkatzeko erabili behar duen jendearentzat izango da abantaila, horrek bai mesede egin du. Gertatzen dena da guztiek telefono mugikorra eduki nahi dutela baina ez dute antena etxe ondoan edukitzerik nahi; denek autoa eduki nahi dute eta ahalik eta arinen joan edozer zeharkatuz, denok nahi ditugu abantailak, baina ez dugu eragozpenekin gogaituta egoterik nahi. Hori dela eta, galdetu du ea gauzak hobetzeko konponbiderik dagoen, gaur egun Aldundiarekin dagoen hitzarmen bidez proiektatzen direnekin baino gehiago, ezetz uste duela adieraziz. Aditzera eman du, hasiera batean eduki ahal ziren ideien geldiarazpen bat gertatu zela, Europa mailako tunelei buruzko araudia dagoeneko tunela eginda zegoenean ezarri zelako eta orduan hitz emandako eta egin nahi zen estalketa ezinezko bihurtu zen. Aditzera eman du, hala ere, uste duela aukerekin eta ez idealekin aurre egin behar zaiola, izenburuaz hitz egitea anekdota bat da, benetan esaten duenarekin bat datorrelako, Irisgarritasun iraunkorraren hitzarmena bizi-kalitatearen hobekuntza delako, zerbait hobetuko duelako, zalantzarik gabe, nahi izango genukeen kalitate eta hobekuntza guztia izan ez arren.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Bere esku-hartzea bukatzeko adierazi du, PPko bozeramaileak aipatu duenari buruz, hiru gaineko pasabideen kontua, EAJ-PNV alderdiko bozeramaileak bitaz hitz egin duela, berak proposatzen du planteatzea ea benetan bi horiek egitea egokia den ala ez, bi pasabideak paraleloak izango direlako, oso hurbil dagoen toki batean eta distantzia oso txikiarekin; baina hori, beste momentu batean aztertu beharreko gai bat izango da.

EB-Berdeak taldeko Iñaki Gomendiourrutia Sáinz jaunak honakoa adierazi du:

Bere taldeak ere ez du aldeko botoa emango, ezezkoa ere eman nahi ez duen arren, zati batez aztertutako edukiak zentzuzkoa dirudielako, eta askotan ona delako, baina uko egite handia dakar, ez daki idealei, printzipioei edota borondateari dagokionez, baina ezer ez da ezinezkoa, orain dela hogeitau urte bi erreietako errepide bat zegoelako eta orain zortzi erreietako, lau azpitik eta lau goitik, makro-autobidea dago; beraz, orain dela hogeitau bost urte nork amestuko luke Leioa horrelakoa izango zela? edo Larrabetzun orain dela hogeitau urte, nork amestuko luke kamioiek balkoiak lehertzeari utziko ziotela?, eta orain saihesbide txundigarri bat daukate. Zein da konponbidea? Ez daude asko, baina ziur aski baten bat egongo da, berari bat bururatzen zaio eta dagoena ez betetzea da, baizik eta metroa bertatik pasa dadila eta errepidea herritik kanpo, mundu guztian bezala, autobidea erditik zeharkatzen den eta metroak inguratzen ez duen munduko herri bakarra baita.

Izenburuari dagokionez, titularretan eta memoria hurbilenean geratzen dena dela esaten du, irisgarritasun iraunkorrarena hogeitau urtetan bi erreietako errepide batetik zortzi duen batera igaroz, ba erriak herriaren erditik kendu behar dira, hori begien bistakoa da, noiz eta nola eta zenbat balio duen, hori beste kontu bat da.

Aditzera eman du, irisgarritasunari dagokionez bizi-kalitatearen hobekuntzaz hitz egiten denean eta ezetz esaten denean, kontua da hemen amarratzen dugula, gizona! alboetako bideen titulartasuna hartzea kudeaketa errazteko garrantzitsua da, askotan planteatu da gauzak egin ahal izango zirela hori gertatu balitz eta ezin izan zuten egin Aldundiarena zelako, baina gaur egun irisgarritasun iraunkorra eta bizi-kalitatea lortzea, tranbiarako ez dakit zenbat milioi euro dira, hori horrela deitu ahal zen hitzarmen bat da, besteak adabakiak dira, beharrezkoak, positiboak, garrantzitsuak, baina egoera problematiko baten adabakiak dira, bere konponbide bakarria tirta gehiago jartzea ez dela uste duena, garrantzitsuak direla odolik ez botatzeko, baina ziur aski konponbide bakarria moztea dela. Zer da hori? Finkatzea hori dela izango dena eta nahi duguna, horregatik esaten du baiezko botoa ematea dagoena gustuko duela eta hobetuko dela esatea bezala izango litzateke. Zatiak gutxi gorabehera estaltzearen kontuak egoera hobetuko luke, pasabide gehiago edo gutxiago egoteak ere, jakina, ez daki berrogeitau hamar behar diren, baina ziur aski Euskaltegira joan nahi duen Mendibekoa den inori ez litzaioke ondo irudituko herria Pinosoloko pasagunetik zeharkatzea, kirola bakarrik egiteko beste momentu batzuk daudelako.

Bere esku-hartzea bukatzeko adierazi du, kontua dela arazoari ez zaiola ekiten, baizik eta oso garrantzitsuak diren arazoei konponbide partzialak bilatzen zaizkiela, baina guztiarekin ere, letra larriak dituen arazoa finkatzeaz abiatu direla, hau da, autobideak herria zeharkatzen duela eta ez dela hori saihesteko ezer egingo.

EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola alkate jaunak honakoa adierazi du:

Bi akats larri egin ahal izan dituztela uste du; bata, hori konpontzen dela esatea da; eta bigarrena, hitzarmen horren edukia mespretxatzea.

Adierazi du berak berresten duela, lehenengo eta behin hitzarmen hori oso positiboa dela, izenburuak hain zuzen ere seinalatzen duen inguruko konponbideak barne hartzen dituelako, hala nola: irisgarritasun hobea eta bizi-kalitate hobea. Bigarrenik, aditzera eman du hitzarmen horrek ez duela ezeri uko egin behar dela esan nahi, eta berak alkate gisa ez diola ezeri uko egiten eta bere taldeko bozeramaileak ere ez, ezta Gobernu-taldeak ere, eta hori dela-eta, hain zuzen ere, ezagutzen



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

den norabidean artikulua bat sartu dutela, ez diotelako ezeri uko egin; beraz, konponbide integral bat bilatzen den bitartean, hori baita Aldundiak nahi duena, Avanzadako arazoari konponbide integral bat elkarrekin bilatzea, erabaki zehatzak hartu behar dira, jendea han bizi delako. Aditzera eman du, berak uste duela baliozko objekturik ez dela sartu behar, berak igarri ez duela esatea, ulertzen du kritika politikoa sartzea dela, ez dela arduratsua izan, ez duela lortu, baina borondaterik ez duela esatea pixka bat gogorragoa da, sei urte eta erdi igaro ondoren borondaterik eduki ez duela esatea, berak PPko bozeramaileari Sustapen Ministerioaren hirurehun milioiak jasotzeko borondaterik eduki ez duela esatea bezala da, eta hori berak ez du inoiz esango, bera ziur dagoelako borondatea zuela, beste kontu bat da heldu ez direla, gauza bat borondatea da eta beste gauza bat emaitza, eta edozelan ere, adierazi du ez duela mintzen, baina ez zaiola bidezkoa iruditzen.

Aditzera eman du izatekotan, berriro esaten duela konponbide zehatzak dakartzan hitzarmen positibo bat dela. Lurpeko tunelak ez dira konponbide bat, askotan arazo bat izaten dira, baina ez Leioan bakarrik, gai hori aztertu dute eta horregatik bera espezialistetatik eta irigarritasunean lan egiten duten ingeniarietara fidatzen da, ikuspegi gizatiar eta politiko batekin ere ikusi behar den arren. Frogatuta dago tunelak ez direla konponbide bat, pasabideak askoz adiskidetsuagoak dira, segurtasunaren ikuspuntutik askoz hobekiak dira, etab.; hortaz, bi konponbide horiek, Mendibeko pasabidea eta Artazako pasabide, uste du bi konponbide on direla bi tunelak ixteko eta berak ixtea proposatzen duela.

Alboetako bideen kargu egiteari dagokionez, berak uste du garrantzitsua dela haien kudeaketa hobea izateari begira eta gizatiarrago egiteko, berak uste du sarritan, EB-Berdeak alderdiko bozeramaileak ondo esaten zuen bezala, posible ez ziren gauzak egiten saiatu direla, alboetako bideak ez direlako udal-titulartasunekoak eta batzuetan auzotarrak datoz berak egin ezin dituen gauzak eskatzera, udalak titulartasunik ez duelako; beraz, berak espero du bi milioi eurekin pasabide bat egin daitekeela eta alboetako bideetan gauza garrantzitsuak egin daitezkeela.

Astrabuduko saihebidetara etorkizunean sartzeari dagokionez, berak uste du gauza oso bikaina dela, oso garrantzitsua, berak uste du oraindik ez direla konturatu hitzarmen horren bitartez lortu denaz, eta pentsatzen du egunen batean konturatuko direla.

Bere esku-hartzea bukatzeko berriro esan du hemen ez diotela ezeri uko egiten, berak ulertzen du kritika politikoa egin behar dela, baina hiri bat pixkanaka-pixkanaka egiten da, eta ez da bat-batean egiten arazo guztiak konponduz. Berak bere gain hartzen du eta beti esan du Leioako bi arazo nagusiak Avanzada eta garraio publikoko gaiak direla eta berdin pentsatzen jarraitzen du, eta horretan lan egiten jarraituko du, borondate politiko eta pertsonalarekin, PPko bozeramaileak sinetsi ez arren, eta berriro dio berri ona aurrerapauso garrantzitsu bat eman dutela dela, arazo guztia konpondu ez arren, baina egingo ez dutena jendea gezurra esatea da, ez diete esango Asuatik Artazara lurperatuko dutela, ez dutelako jendea engainatu nahi.

PPko Xabier Olabarrieta Arnáiz jaunak honakoa adierazi du:

Alkate jaunak egindako esku-hartzeari erantzuna ematen hasiko da. Aditzera eman du, lehenengo eta behin, berresten dela Leioako arazo hori ekin nahi izateko borondate politikoaren gabeziari dagokionez, ulertzen dute hitzarmen horren edukia Avanzadak sortzen duen kutsadura-arazoari ekiteko borondate politiko gabezia horren isla dela; izan ere, esan daiteke PNV ez dela udal-gobernura etorri berria, dagoeneko urte batzuk daramatza eta urte horiek igaro ondoren, lehenago aipatu dena da, hitzarmen hori dela, orokor bilkurari eta herritarrei proposatzen diren konponbide horiek direla, ulertzen du, jakina, ez dela behar bestekoa, ezta Leioak behar duena ere.

Adierazi du, EAJ-PNV alderdiko bozeramaileak egin duen aipamenarekin jarraitu nahi duela hauteskunde-orakulu gisa aritu denean, beste egoera batean PP alderdiak eduki ditzakeen zinegotzi-kopuruari dagokionez, esan nahi du guztiek hauteskundeak baldintza demokratikoei eta askatasunari dagokionez berdintasunez tratatzeko aukera izango balute, hain zuzen ere, ziur aski



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

agian emaitzak beste batzuk izango zirela, baina zoritxarrez ez da horrela izan eta oraindik ez da posible, zentzu horretan, eta edozelan ere, uste du lehen alkateordea eta EAJ-PNV alderdiko bozeramailea denak egin duen baieztapena ez dela bidezkoa.

Adierazi du, ulertzen dutela metroa zein Avanzada bereziki eskuinaldeko herrigunea (biztanle-kopuruari dagokionez Getxoko udalerrria) zerbitzatzeko egin zirela bere garaian, eta dagoeneko garaia dela, jakina, berandu ez bada udalaz gaineko erakundeek eta, zalantzarik gabe, gure udalak jarduketa horiek bultzatuz, arduratzeko eta Leioak merezi duen dirua inbertitzen hasteko.

Bukatzeko adierazi du, orain dela bi urte bere talde politikoaren hauteskunde-programan sartutako proposamenen batzuk irrealizat hartuak izan direla edo herritarrak engainatzen zituztela. Horri dagokionez adierazi du, ulertzen dutela bere taldeko hauteskunde-programan sartu diren proposamen guztiak, Leioari konponbiderik hoberena eskaintzeko borondatearekin eginda daudela, eta zentzu horretan, EB-Berdeak alderdiko bozeramaileak azaltzen zuen bideari jarraiki esaten zuenean nork imajina zezakeen orain dela berrogei urte Leioan udalerrri erditik igarotzen zen errepideak urte batzuetara lurperatua izango zela erditik igarotzean, segur aski pentsaezina izango litzateke eta bere garaian proposamen horiek proposatu zituen edonork, ez zukeen sinesgarritasunik izango, ulertzen dutelako bere garaian proposatu zituzten konponbideak aztertuak izan behar dutela eta kontuan hartu behar direla, haien ustez Leioak behar duen konponbidea delako.

PSE-EE-PSOeko Susana González Rómulo andreak honakoa adierazi du:

Bere ustez, Leioak guztiek baloratzen duten bertute bat du eta herriaren barrutik eta kanpotik baloratzen da eta estrategikoki kokatuta dagoela da, Bilbo eta Getxoren artean, eta daukan egoera ona, eta bertute hori eragozpen bihurtzen da, jentila delako, Leioatik hurbil dauden eta Bizkaiko lurralde historikoaren zati oso garrantzitsuak diren herrien morrontza da. Jarraian eta alkate jaunari zuzenduz adierazi dio borondateari buruz, berak ez duela hori inoiz zalantzan jarri eta ez duela gaur egingo, baina aitortu behar dela bertute hori eragozpen bihurtu dela eta erantzukizunen bat izango duela udalerrria zuzentzeko agindua duenak.

Ondoren adierazi du, EAJ-PNV alderdiko bozeramaileak esan duela ez dela arazo bat bakarrik, baizik eta arazo handia, eta, hain zuzen ere, Avanzada egin eta urte asko igaro ondoren, esan behar du Alderdi Sozialistako lau zinegotziek arrazoi zutela, eta oker egotea gustatuko litzaioke eta hogeitau urte barru toki honetan eseriko diren hamabi edo hamalau zinegotzi sozialistak esan behar ez izatea gaurko zinegotzi sozialistek arrazoi zutela.

EA alderdiko bozeramaileak egindako esku-hartzeari dagokionez, adierazi du haren esku-hartzea etsipenezkoa izan zela, honelako hitzak erabiliz: Zer egingo diogu? Hauxe da dagoena, Avanzada horrela dago, eta uste du ezin dela etsipen hori eduki Leioako Udalerrria gobernatzeko ari delako. EA alderdiko bozeramaileak aipatu dituen arazo teknikoak buruz, adierazi du politikarien lana ez dela arazo teknikoak konpontzea, horretarako beste batzuk daudela, eta arazo teknikoak egon arren, haiek irizpide politikoa ezartzeko daude eta irizpide politikoa arazotzat jo dutena konpontzean datza. Jarraian, EA alderdiko bozeramaileari adierazi dio bereizten duena, batez ere, ingurumenarekin, irisgarritasunarekin eta antzeko gaiei oso begira egotea dela, eta Avanzadak zerbait eragiten badu ingurumenarekin, eta ez irisgarritasunarekin, zerikusia duen arazo bat da. Era berean, EAKo Trigueros jaunari adierazi dio ez zela Avanzadaren alde jarri ezta aurka ere, garai haietan denak EAJ-PNV alderdikoak zirelako, ondoren beste zerbait esango zuen, baina Avanzada egin zen egunean, EA ez zen alderdi politiko gisa existitzen.

Alkate jaunak Leioak bi arazo dituela (garraioa eta Avanzada) aditzera eman duenari dagokionez, adierazitako bi arazo horiek Leioak dituen arazoak izaten jarraitzen dute, gaur egun konponbide bat eman ez delako.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Eako Ernesto Angel Trigueros Santa Coloma jaunak honakoa adierazi du:

Etsipena batzuetan ona izan daiteke, baina ez da, hain zuzen ere, berak erakutsi nahi izan duen espiritua. Adierazi du, bera PSE-EE-PSOE alderdiko bozeramaileak aditzera eman duenarekin bat datorrela, Leioakoa bakarrik ez den arazo bat esan duenean, Bizkaiko inguru oso handi baten (Uribe Kosta) trafiko guztiaren arazo bat da, herria zeharkatu eta herriaren erditik abiatzen dena eta herritarrei kea irentsiarazten diena, baina testuinguru horretan, ikusi behar dena dauden aukerak dira.

Metroa herriaren erdian egoteari eta errepidea beste aldetik joateari dagokionez, adierazi du gasen kutsadura, Avanzadaren azpitik joatea berdin dela, bi kilometroko distantziara igaro arren, gas horiek erretzen direlako eta guztiok erretzen ditugulako, autoa egunkaria erosteko baino ez erabiltzen duenak eskua altxa dezala eta ikusiko genuke zein kopuru txikia den, agian etorkizuneko belaunaldiak autoak zer diren gogoratu ez arren, beharbada atetik atera doan, elektrikoa edo telegidatua den lokomozio-bide bat erabiliko delako, baina horiek gaur egun imajinaezinak diren gauzak dira, gaur egun kontuan hartu behar duguna daukaguna da, eta zentzu horretan, berriro esaten du irisgarritasun iraunkorra eta bizi-kalitatearen hobekuntza izenburuan jartzea zuzena dela, nahi dena izan ez arren, hobea izan litekeelako baina zuzena da.

EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo jaunak honakoa adierazi du:

Arazoaren funtsari dagokionez hitzarmen horrek arreta lau arazotan jartzen du: bat, alboetako bideak erregulatzeko; bestea, alboetako bideak hobetzeko; beste bat, Astrabuduko konexioari buruzko erabaki bat hartzeko eta nork ordainduko duen; eta azkenik, lubakien arazoa. Lau arazoetatik, hiruri irtenbidea aurkitu zaie eta laugarrena erabaki politiko eta borondate politikoarekin identifikatzen da, data honetan zerbait gehiago egitea, guztiz suizida den zerbait izango dela uste duelako, gogoratzen delako 1999. urteko protokoloan hitz egiten zela lubakien konponbidea % 50ekin batera finantzatzeko zela, Suitzako tunelaren kontu ospetsuen ondoren % 50eko kopurua diru asko da eta hor zer egin daitekeen eta zenbatean balora daitekeen jakiterik ez dago; beraz, esan duen bezala lau arazoetatik hiru argitzen dira, eta batez ere irtenbidea aurkitu ahal izateko nahiko nagusiak eta autonomoak direla pentsatu behar da.

PPko bozeramaileak egindako esku-hartzeari dagokionez, aditzera eman du borondatezko eta ezintasunezko arazo bat izango dela, pertsonaren ontasuna ala ez ontasuna baino haratago doana. Adierazi dio, orakulu deitu duela eta horri dagokionez PPko bozeramaileari esan behar dio bere burua borondateen igarle izendatu duela. Horri dagokionez aditzera eman du, berak ez duela orakulu lanik egin, asko jota emaitza bat interpretatu du, eta ez da hauteskundeetako emaitzen igarlea, PP Avanzada osoa estaltzeko programa batekin etorri zenez eta Batasuna presente egongo balitz hiru zinegotzi egon beharrean lau daude; hortaz, hori da errealitatea. Adierazi du, emaitza batzuek interpretatzen dituela herritarrentzat sinestezinak diren proposamen batzuekin; horregatik, ez du beste kalifikatibo bat gaineratuko, baina gutxienez sinestezinak dira. Aldunditik erabaki jakin bat lortzeko ezintasunei buruz hitz egiten denean, berak esan behar du PP alderdiak zortzi urtetan gobernatu duela eta haiek ez direla Gobernu Zentralak Leioako Udalari ehun eta laurogei milioi pezeta emateko gai izan; beraz, zein ezintasunaz hitz egiten ari da, hemen udalak estalketan eman behar duenaren %50az hitz egiten baita; hori dela eta, seriotasun gehiago eskatzen du.

Bere esku-hartzea bukatzeko adierazi du, entzuten dionean esaten nork imajina zezakeela berrogei urtetan Leioan egin dena egin dela, berak esan behar du gehiena azken hogeita bost urteetan egin dela eta, gainera, hemen dagoen bezalako gobernu ezgaiekin eta borondate gabekoekin egin dela.

EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola alkate jaunak honakoa adierazi du:

Gobernua kritikatzan duten diskurtso-mota horiek ondo daude, politikaren zati bat delako. Ondoren, PSE-EE-PSOE alderdikoa den Susana González andreari adierazi dio, Bilboko metroaren



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

erantzukizunaren zati handi bat, eta gainera positiboki dio, sozialistena dela, Alegría eta Maturana jaunena, eta era berean, metroak Lamiakotik igarotzearen, eta ez herriaren erditik, erantzukizunaren zati handi bat ere sozialistena dela, hau da, egin dezagun balantze bat, oreka dezagun balantzea, bi gauza hauek egia direlako.

Jarraian, honi dagokionez: zein da Leioaren drama?, adierazi du Leioa hirurogeiko hamarkadan modu esponenzial batean hazi zela eta horren gainean esaten ziola Enekeri –EAJ-PNV alderdiko bozeramailea- bera haur bat zela Avanzadatik gizon bat igaro zenean, oso handia zen auto batean zihoan gizon bat zela, bizkartzainez inguratua, baxua eta biboteduna zen, eta orain dela gutxi bere heriotzaren urteurrena izan dela, hura hemendik igaro zen, orduan Leioako drama berrogei urte haietan edozein modutan hazi zela, espazio publikorik gabe, parkerik gabe, eta Leioa herri errepide bat bezala geratu zela, hori da drama, historiaren zati bat da, eta borondatea, orduan bazegoen borondatea bai!. Berak hemen berresten duena da konponbiderik hoberena Leioako Gobernu-taldeak proposatu duela, hogeita bost urteotan Leioa hobeto bizi den toki bat izateagatik bereiztea lortu duten Euskal Nazionalistak eta horretaz jendea konturatzen ari delako, arrazoi horrengatik hona dator bizitzera. Arazoak daudela? Noski baietz, eta EAJ-PNV alderdiko bozeramaileak esan duen moduan hiru arazo garrantzitsuei irtenbidea aurkitu zaie eta irtenbideak aurkitzen jarraitzen saiatuko dira. PPko bozeramaileak esandako borondate gabekia dela-eta, esaten jarrai dezake, haiek entzuten dutenean barre egingo dute. Aditzera eman du, halaber, lanean jarraituko dutela, baita gai horri eta tranbiarenari irtenbideak aurkitzen eta erabakiak hartzen ere.

Eztabaidaren ondoren bozkatzeko ipini da. Hona hemen bozketaren emaitza:

BOZKETA ETA OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Gaia bozkatu egin da, eta honakoa izan da emaitza: Aldeko hamaika boto, EAJ-PNVko hamar ordezkariak eta EAKo ordezkariarena; kontrako lau boto, PSE-EE-PSOeko lau zinegotzienak; sei abstentzio ere egon dira, PPko lau zinegotzienak eta EB-Berdeak taldeko bi zinegotzienak. Horrenbestez, Udalaren osoko bilkurak, **gehiengoaren aldeko botoaz erabaki du** Leioako Udalaren eta Foru Aldundiko Herri Lan eta Garraio Sailaren artean sinatu beharreko “Irisgarritasun iraunkorraren aldeko eta Leioako hirigunean bizi-kalitatea hobetzeko hitzarmena” izeneko agiria onestea, Hirigintza, Garraio, Etxebizitza eta Ingurumeneko Informazio Batzordearen irizpenean azaldutakoari jarraituz. Era berean, alkatea-udalburua ahaldunduko da bertatik eratorriko diren agiri publiko zein pribatu guztiak gauza ditzan.

20.- EUSKAL UDAL LEGEARI BURUZKO OSOKO BILKURAREN ERABAKIRAKO PROPOSAMENA: Tokiko Gobernu Batzarrak 2005eko azaroaren 2an egindako bileran onetsi zuen Alkatetza-Udalburutzaren 656/2005 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Barne Araubideko Informazio Batzordeak 2005eko urriaren 25ean hartu zuen 110. zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

Informazio Batzorde honek, 2005eko urriaren 4an egindako batzarrean, 96/05 irizpena hartu zuen; hona hemen, hitzez hitz:

“Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak, Alderdi Popularraren udal taldearen bozeramaileak honako erabaki-proposamena aurkeztu du udalean, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko (sarrera-erregistroko zk.: 6197/05):



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

“ERABAKI-PROPOSAMENA

2005eko apirilko hauteskunde autonomikoen ostean, legegintzaldi berria hasi zen Euskal Autonomia Erkidegoan eta, gure iritziz, erabakitasunez egin beharko lioke aurre Euskal Udal Legea tramitatu eta onesteari. 25 urte igaro dira gobernu autonomikoak daudenetik, eta Euskal Autonomia Erkidegorantz egin den eskumenen deszentralizazioa apartekoa izan da; benetan deigarria da Eusko Jaurlaritza izan den oztipoa garapen autonomiko propiorako.

Euskal udalok 25 urte daramatzagu eusko jaurlaritza jeltzaleak gobernu zentralari egiten dizkion eskumen aldarrikapenen ikusle huts eta subjektu pasibo gisa eta, aldi berean, eusko jaurlaritza jeltzaleak inoiz ez die kasurik egin euskal udalen aldarrikapenei, herritarrei zuzenean eragiten dieten eskumenak kudeatzeko gaitasuna duten erakunde gisa aintzatets ditzan.

Epe honetan euskal udalek guri ez dagozkigun hainbat zerbitzu eman behar izan ditugu, udal baliabideen bitartez finantzatuta. Egoera hau onartezina da. Euskal udalek arrazoiz eta orekaz kudeatu behar dituzte euren herritarrei ematen dizkieten zerbitzuak. Ezin da beste legegintzaldi bat igaro guztiz garrantzitsua den gai hau aztertu gabe.

Hori guztia dela eta Alderdi Popularra udal taldeak honako erabaki hauek ipini ditu osoko bilkurak horiei buruzko iritzia emateko:

1.- Leioako Udalaren osoko bilkurak agindeia egingo dio Eusko Legebiltzarrari, lehentasuna eman diezaion Euskal Udal Legea onesteari, udalek 2007. urterako erabili ahal izan dezaten.

2.- Leioako Udalaren osoko bilkurak agindeia egingo dio Eusko Legebiltzarrari, epe berean Ekarpenen Legea eraberritzeko aukera azter dezan, udalek euren eskumen-eremu berria garatzeko beharrezko finantza-baliabideak izan ditzaten.”

Barne Araubideko Informazio Batzordeak gaia mahai gainean uztearen aldeko irizpena eman du , azaldutako proposamenaren xehetasunak aztertu ahal izateko.”

Gai honen inguruan, EAJ-PNV eta EA Udal Taldeek honako proposamen alternatiboa aurkeztu dute:

“ALDERDI POPULARRA UDAL TALDEAK EUSKAL UDAL LEGEARI BURUZ UDAL HONETAN AZALDU DUEN PROPOSAMENARI, EAJ-PNV UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO PROPOSAMEN ALTERNATIBOA

EAJ-PNV udal taldekook, Eusko Legebiltzarrean honi buruz adierazi genituen planteamenduak geure eginez, honako PROPOSAMEN ALTERNATIBOA proposatu nahi diogu udalaren osoko bilkurari:

Udal honek agindeia egingo dio Eusko Jaurlaritzari, legegintzaldi honetan eta berau amaitu aurretik, Euskal Udal Legearen proiektua onets dezan.”

PP udal taldearen ordezkariak iragarri du abstenitzeko asmoa duela, gai horri buruz gehien dakien zinegotzia ezin izan delako bilerara etorri. PSE-EE-PSOE eta EB-BERDEAK taldeetako ordezkariak ere, abstenitu egingo direla iragarri dute.

Barne Araubideko Informazio Batzordeak, EAJ-PNVko lau zinegotzien eta EAko ordezkariaren zinegotziaren aldeko botoarekin, aldeko irizpena eman dio EAJ-PNV udal taldearen proposamenari; hala ere, hala badagokio, proposamen biak aurkeztuko zaizkio udalaren osoko bilkurari, horiei buruzko iritzia eman dezan.

EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK eta **ALKATETZA-UDALBURUTZAK berretsi egin dute** goian adierazitako irizpena. Bada, gai hau Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean aztertzeko ipini beharko da.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak honakoa adierazi du:

Barne Araubideko Batzordearen irizpenean, dauden bi proposamenak Osoko Bilkuran bozkatzea proposatu da. Proposamen bat, PP alderdiak egindakoa da eta bi puntu barne hartzen ditu; bestea, Euzko Alderdi Jeltzaleak planteatzen du ordezeko proposamena da.

EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola alkate jaunak honakoa adierazi du:

Horrela gauzatuko da.

PP alderdiak egindako proposamenaren bozketa:

Lau aldeko boto, PPko lau zinegotzienak. **Hamaika kontrako boto**, EAJ-PNV alderdiko hamar zinegotzienak eta bat EAkoarena. **Sei abstentzio** PSE-EE-PSOeko lau zinegotziek eta EB-Berdeak alderdiko bi zinegotziek emandakoak.

EAJ-PNV alderdiak egindako proposamenaren bozketa:

Hamahiru aldeko boto, EAJ-PNV alderdiko hamar zinegotzienak, EB-Berdeak alderdiko bi zinegotzienak eta bat EA alderdikoarena. **Zortzi abstentzio** PSE-EE-PSOeko lau zinegotziek eta PPko lau zinegotziek emandakoak.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalbatzak Osoko Bilkuran **gehiengoaren aldeko botoaz erabaki du**, deskribatutako hitzetan Euskal Udal Legeari buruzkoa den eta EAJ-PNV udal taldeak aurkeztutako proposamena onartzea.

PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak honakoa adierazi du:

Euzko Alderdi Jeltzaleak planteatutako ordezeko proposamenarekiko bere alderdi politikoaren abstentzioaren arrazoia azaldu nahi duela. Aditzera eman du, bere mozioan planteatzen zutela, nolabait esateko, Eusko Legebiltzarra, 2007. urtea baino lehen, Euskal Udal Legea bideratzeko behartzen zutela, hurrengo udal hauteskundeen ondoren Udal Gobernuak erata daudenerako udal lege hori egon dadin.

Horrez gain adierazi du, berrikusteko puntu bat ere bazegoela, Eusko Legebiltzarrak ere gauzatuko lukeen ekarpen-legearen erreforma bat egiteko aukera, zentzu horretan urgentzia bat planteatzen zuten 2007. urterako dagoeneko Legea egon zedin. Euzko Alderdi Jeltzalearen proposamenak lau urteko tartea ezartzen du 2005etik zenbatzen hasita, hau da 2009rako, uste dute ez dela gaur egun udalek behar duten urgentzia bat eta horregatik ulertzen dute Eusko Legebiltzarrari erreforma hori premiatu arren ez dela haiek nahi duten urgentziarekin.

EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola alkate jaunak honakoa adierazi du:

Dena dela, Eusko Legebiltzarrean ebazpen bat onetsi zela jakinarazi nahi du. Ebazpenak Gobernu-taldeen eta Alderdi Sozialistaren aldeko botoa jaso zuen, ez daki Alderdi Popularrak emandakoa, ezetza izango zela imajinatzen duen arren. Ebazpenean, Legea 2007an aurkeztuko konpromisoa hartu zen, laster Tokiko Gobernuen Oinarrien Legea aurkeztuko dela kontuan hartuz segida hori logikoa da, eta zentzu horretan zure taldeak baiezeko botoa eman badu, Legebiltzarrak eta Gobernuak jarritako egutegiarekin sinkronizatzeko asmoa duzuelako da.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

21.- ERAKUNDEEN ADIERAZPEN PROPOSAMENA, EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA DELA ETA. Tokiko Gobernu Batzarrak 2005eko azaroaren 15ean egindako bileran onetsi zuen Alkatetza-Udalburutzaren 704/2005 zenbakidun ebazpenaren berri eman zaio Udalaren osoko bilkurari, osoko bilkurak ebazpen horren inguruko erabakia har dezan. Hona hemen ebazpenak dioena:

Barne Araubideko Informazio Batzordeak 2005eko urriaren 8an hartu zuen 113. zenbakidun irizpena gai honi buruzkoa da:

Batzorde honetako kidea den EAJ-PNV udal taldeko Bea Resa Bardeci andreak honako idazkia aurkeztu du:

“ERAKUNDEEN ADIERAZPENA

Emakumeen kontrako indarkeria giza eskubideen urratze onartezina da eta, seguru aski, emakumeek bizitzako hainbat eremutan jasaten duten diskriminazio-egoeraren ondorioz larriena.

Emakumeen kontrako indarkeria eta diskriminazioaren arazoa alderdi askoko eta egiturako fenomeno da, eta berau kentzeko, behar-beharrezkoa da botere publiko guztiek eta gizarte guztiak elkarrekin parte hartzea. Gainera, eremu asko koordinatzearen bitartez jardun behar da: legeria, ikerketa, sentsibilizazioa, aurrea hartzea eta biktimak lagundu eta babestea.

Leioako udalak badaki toki administrazioak funtsezko egitekoa duela emakumeen kontrako indarkeriari aurrea hartu eta berau kentzeko lanean eta, horrexegatik, azaroaren 25ean emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna ospatzen dela kontuan hartuta,

- *KONPROMISOA HARTZEN DU, bere eskumenen eremuan eta indarrean dagoen legeria aplikatuta, sexuen arteko berdintasunaren aldeko eta emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako udal politika aktiboa garatzeko.*
- *Udalerriko herritar guztiak ANIMATZEN DITU indarkeria honen aurkako jarrera aktiboa hartu eta azaroaren 25a ospatzeko egingo diren ekintzetan parte har dezaten. “*

Barne Araubideko Informazio Batzordeak aldeko irizpena eman dio proposatu den Erakunde Adierazpenari. Gainera honako egitarauaren berri izan du: aurreikusi denez, hitzaldi bi antolatu dira azaroaren 14 eta 24an, 18:30ean Kultur Leioan, eta kontzentrazioa egingo da azaroaren 25ean, 12:00etan, gai honi buruzko sentsibilizazio-kanpaina ere egingo dela.

EBAZPENA

TOKIKO GOBERNU BATZARRAK **berretsi egin du** goian adierazitako irizpena eta ALKATETZA-UDALBURUTZAK onepenari buruzko **dekretua egin du**. Bada, ebazpen hau Udalaren osoko bilkurak egingo duen hurrengo batzarrean berretsi beharko da.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak **aho batez onetsi du** erakunde adierazpen proposamena, Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna dela eta.

PSE-EE-PSOeko Mercedes Angulo Ardozgoiti andreak honakoa adierazi du:

Guztiak ados badaude ere, Alderdi Sozialistak gai horri buruz pentsatzen duena eta haren proposamenak adierazteko berak esku hartu nahi duela adierazi du.

Hasteko, aurkeztu den Berdintasun Plan hori oso ondo iruditzen zaiela adierazi du, baina bere taldearen ustez, dagoeneko laugarren edo bosgarren Berdintasun Plana izan beharko litzateke. Beraiek politika horiek Ekintza Positiboko politika gisa definitu nahi izango litzatekeela adierazi du, María Teresa Fernández de la Vega presidenteordeak dioen bezala.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Uste dute Euskadin aldaketa bizkorrak egon direla emakumeen egoerari dagokionean, batez ere Europako beste herrialde batzuk erreferentzia gisa hartzen badira. Hori gertatu da, emakumeen jarrera eta ekintzagatik batez ere: ez dute onartu nahi izan historian eman zaien eginkizuna, eta eremu publikoa eta pribatua banantzen zituen muga apurtu dute, lanaren gizon eta emakumeen arteko sexu-banaketa iraunarazten zuen egitura, hain zuzen ere.

Unibertitateak emakumeez bete dira, eta emakumeen jarduera-tasa gizonena baino handiagoa da. Hala ere, gaur egun txirotasunaren aurpegia emakumeena da Euskal Autonomia Erkidegoan eta Espainian.

Oraindik ere emakumeek gizonen baino soldata txikiagoa kobratzen jarraitzen dute, eta zirkunstantzia sozialak direla eta, emakume askok ezin dute beren amatasunari buruzko erabakirik hartu askatasunean, independentzia ekonomiko/ibilbide profesionalaren eta amatasunaren artean erabaki behar dutela.

Genero-indarkeriari dagokionez, sexuen arteko errespetuak eta aukera-berdintasunak genero-indarkeriarik gabeko Euskal Autonomia Erkidegoa ekarriko dutela uste dute. Batez beste astean pertsona bat hiltzea gizarte kontziente batek jasan dezakeena baino askoz gehiago da. Indarkeria irrazionala da, emakumea gizonena dela defendatzen duten aspaldiko argudioetan oinarritzen dena. Biktimei elkartasuna adierazi ezean eta tratu txarrak jasotzen dituzten emakumeen bizitza babestu ezean, gaizkide izan daitezke. Bere talde politikoak gizartea sentikor bihurtu eta indarkeriaren aurkako ekintza eraginkorrek lortzeko lan egingo duela adierazi du: erasoak eta erasotzaileak babesik gabe uzteko lan egingo dute, gazteak aukera-berdintasunari eta gizaki bakoitzaren independentziari begira hezteko lan egingo dute, eta kulturaren eremu guztietara (publikoak zein pribatuak) helduko den gizon eta emakumeen arteko kontratu sozial berria proposatuko dute. Horrek eginkizunen emakume eta gizonen arteko gaur egungo banaketa berriro egitea dakar, aukera eraginkorren berdintasuna lortzeko. Era berean, hezkuntza, hizkuntza eta komunikabideen bidez eratu den emakumeen irudia baldintzatzen duten jarrerak eta balio sozialak aldatu behar dira, ondokoak behar dituen itun sozialaren bidez: familiaren erantzukizunak partekatu, lana partekatu, boterea partekatu, eta aukera-berdintasunean bizi den gizartea posible egiten duten baldintzak sustatu.

Euskal sozialisten lehentasun politikoa emakumeen kontrako indarkeria desagerraraztea eta Euskal Autonomia Erkidegoko politika publiko guztiak koordinatzen dituen figura baten bidez desberdintasunaren estereotipoei aurre egitea dela adierazi du, genero-indarkeriaren aurkako borrokaren arduraduna den eremu pribatuan neurriak bultzatzeko. Halaber, lehentasunezkoa izango da egoera larrian geratzen diren eta batez ere emakumeak diren alargunei konpentsatzea, eta horretarako, hauxe aldarrikatzen dute: zeharkakotasun eraginkorra lortzea gobernuko politiken garapenean; emakumeen kontrako indarkeriarik gabeko Euskal Autonomia Erkidegoa lortzeagatik borrokatzea; lan-merkatuan aukera-berdintasuna lortzea, eta emakumeentzako lan kopurua gehitzea, Europako herrialdeetako batezbestekoa lortu arte; familia eta lana bateratzea proposatzea; emakumeek gizarte-sare, politika eta erabakiak hartzeko prozesuetan parte hartzea sustatzea; emakumeen beharrezkoen arreta osoa eskaintzea; emakumeen aldeko balio berriak sustatzea, sentikortasuna, prestakuntza eta emakumeek lanbide zientifiko eta teknikoetan lan egitea bultzatuta; emakumeen lanbideak hobetzera bereziki bideratzen diren autoenpleguko proiektuak bultzatzea, eta emakumeak zuzendaritzako lanpostuak eskuratzeko prestakuntza bideratzen diren prestakuntza-programak ezartzea; emakumeen zuzendaritza-balioak, taldeko lana, horizontaltasuna, egitura malguak eta abar gehitzen dituzten buruzagitzako eredu berriak sustatzea, erakundeak eta bizitza soziala aberasteko modu bat den aldetik; emakumeen bizi-kalitatea eta independentzia posible egiten duten osasun-politikak sustatzea; mundu-mailako oinarritzko errentaren bideragarritasuna aztertzea, txirotasun gehien bat emakumeak –bereziki emakume bakarrak edo adineko emakumeak- ez izateko neurri gisa; hezkidetzaren balioan sakontzea, aukera-berdintasuna lortzeko funtsezko mekanismoa



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

den aldetik; politikan emakumeek parte hartzeko lan egitea, agenda politikoetan gai berriak sartuz, gune publikoak emakumeen ekarpenen arabera berriro hausnartuz eta emakumeen partaidetzako politika berrindartuz; eta azkenik, hezkuntza-eremuetan mutil eta nesken arteko aukeraberdintasuneko balioak zabaltzera bideratzen diren ekintzei laguntzea, ikasketa-planetan berdintasunari buruzko zeharkako ikasgaiak, elkartasun eta gizalegezko bizikidetzako balioak sustatzera bideratutakoak, sartuz.

II.- UDALAREN OSOKO BILKURAK UDAL GOBERNUAREN KUDEAKETARI EGITEN DION KONTROLA ETA JARRAIPENA

22.- ALKATETZA-UDALBURUTZAREN DEKRETUAK ETA TOKIKO GOBERNU BATZARREAN HARTUTAKO ERABAKIAK: 2005-10-15etik 2005-11-25era. Toki Araubideari buruzko Oinarriak arautu zituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 46.2.e) artikuluan, apirilaren 21eko 11/1999 Legeak emandako idazkuntzan, eta azaroaren 28ko 2586/1986 Errege Dekretuak onetsi zuen Tokiko Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiko 42. artikuluan ezarritakoaren arabera, bilkurako espedientean agertzen dira, gero dagokien lekuan artxibatzeko kalterik gabe, epigrafean aipatutako epealdian Alkateak emandako dekretuen kopiak eta Tokiko Gobernu Batzarrak egindako bileren akten kopiak, azter ditzaten.

Udalaren osoko bilkura jakinaren gainean geratu eta ados egon da.

23.- PRESAZKO MOZIOAK

Atal honetan ez da moziorik aurkeztu.

24.- ESKAERAK ETA GALDERAK.

A)PP taldeak egindako eskaera

Iraileko osoko bilkuran Udal Gobernuari edo udal arduradunei eskaera bat aurkeztu zietela adierazi du, Leioa Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Sailaren webgunean agertzea kontuan har zezaten, Bizkaiko areto guztiak biltzen dituen web orrian Leioako udal erakusketa-aretoak agertzen ez zirela antzeman zuten eta. Gainera, gaur egun oraindik agertzen ez direla egiaztatu dute. Hori dela eta, eskaera egin zutenetik bi hil igaro ondoren, Aldundiaren edo beste erakunde batzuen webguneetan agertzen diren mota horretako informazioak berriro berrikusi eta beren udalerrinari eragiten dioten hutsuneak zuzentzeko ahalegina egiteko eskatu dute.

EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola alkate jaunak honakoa adierazi du:

Osoko bilkura egin eta hurrengo astean, eta Kultura Sailaren bidez, Bizkaiko Foru Aldundiarekin harremanetan jarri zirela adierazi du, haien eskaera jakinarazteko. Dena den, hutsunea zuzendu ez dela ikusita, berriro horri ekingo diote, nahiz eta beharbada Arturo Aldecoa jaunak Batzar Nagusietan galdetu beharko duen zergatik burutu ez den.

B) PSE-EE-PSOeko Susana González Rómulo andreak egindako eskaera:

Informazio Batzordeen deialdi eta bilerei dagokienez, deialdia antolatzeke moduko aurrerapenaz egiteko eta Informazio Batzordeen bilera hitzartutakoaren arabera egiteko eskatu du, sor litekeen edozein aldaketa zehatz salbuespena izanda. Izan ere, bilera egin behar den eguneko azken orduan deitzen zaie, eta bilera egiteko egunak etengabe aldatzen dira.



LEIOA AYUNTAMIENTO
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

C) PSE-EE-PSOeko Susana González Rómulo andreak egindako galdera:

Leioako metroko aparkalekuko igogailuaren kontua zertan dagoen galdetu du, hainbestetan galdetu ondoren uste baitute erantzunik jaso ez badute, kontu hori geldirik dagoelako seinale dela.

EAJ-PNVko Karmelo Sáinz de la Maza Arrola alkate jaunak honakoa adierazi du:

Informazio Batzordeei buruz egindako eskaerari dagokionez, arrazoia daukala eta Informazio Batzordeetako buruak aipatutako bilerak antolatzen saiatzen ari direla adierazi dio, zinegotzien lana erraztu eta Batzordeen maiztasunak zinegotzien partaidetzari laguntzeko asmoz. Hori dela eta, ahaleginak egin beharko dira, deialdiak behar bezalako aurrerapenaz egiteko.

Metroko aparkalekuko igogailuari buruzko galderari dagokionean, galdera osoko bilkuraren bileran egin eta hurrengo astean Garraio Partzuergoko gerenteari gutuna bidali zaiola adierazi du, eskaera berriro agertzeko. Gainera, badaki Eneko Arruebarrena jaunak hainbat alditan hitz egin duela gerentearekin. Hurrengo egunean zinegotziarekin bildu behar denez, gai horri buruz hitz egingo dute, eta Hirigintza Batzordearen hurrengo bileran bidezko azalpenak emango dizkio.

Eta gaueko bederatziak eta hogeirenean, Alkatetza-Udalburutzak ekitaldia bukatutzat eman du, eta Idazkaritza honi dagokion akta egiteko agindu dio, adostutako eran onetsi dena. Hori guztia ziurtatu dut idazkaria naizen honek.

OE
ALKATEA,

IDAZKARIA,